




TTiPi - TTAPA

84'ko UDABERRIA

7.ale



LAGUNTZAILEAK

- BERAKO HERRIKO ETXEA.
- GURE TXOKOA
- PRINCIPE DE VIANA
- NAFARROAKO -
- AURREZKI KUTXA.

ARGIAREN

LAGUNTZA

BEREZIAREKIN

Non-ZER

- | | |
|-------------------|--------------------|
| 1. BERRIAK | 23. OSASUNA. |
| 10. NEKAZARITZA. | 24. HAURRAK |
| 11. SEXUALITATEA. | 28. BERTSOLARITZA. |
| 12. EMAKUMEA | 30. ELKARRIZKETA. |
| 14. EUSKARA | 34. AKTUALITATEA. |
| 19. INDUTERIAK | 36. IPUINAK |
| 17. DOSSIER | 38. TXISTEAK. |



BAZTAN

AMAIURKO SOKATIRA TALDEAK

berriro hasiera eman die bere entrenamenduei. Dakizutenez, Amaiurko sokatira taldea Nafarroako txapelduna dugu ia azkeneko bi urte hauetan. Aurtan ere asmo horrekin prestatzen hasiak dire.

ETB. JARTZEAREN ALDEKOKANPAINA

orain dela ilabete batzuk, udalak onartu zuen erabaki bezala, eskaera bat: Euskal Telebistaren erreplikagailua (errepitidorea) jartzea. Udalak, erabakia hartu ondoren, atzeratu dela badirudi, zeren eta orain arte ez du ez eta pauso bat ere eman, erabakia errealitatea egiteko. Hau dela eta, Baztanen kanpaina bat egin da, udalak bere hitza bete dezan. Kanpaina horretan beste ekintza batzuen artean, kartelak jarri, idaztiak etxe guzietara bidali eta firmak bildu egin dira. Hala ere udalak ez du orain arte erantzunik eman.

ELIZONDOKO GILTXAURDI

ZUBIAREN KONPONKETA

1.980 urteko uholdeak 4 zubi hondatu zituen. Horietako bi Udalaren kontura berritu ziren. Aurtan, Giltxaurdiko zubia konpondu dute. 17 miloiko gastuak zeuden, Diputaziotik 5 miloi lortu ziren baina ez zen aski, eta kreditu berezi bat eskatzera behartuak zeuden zubi hori burutu nahiez gero eta halaxe egin da eta aurtan inauguratu da.

GORRAMENDIKO ERREPETIDOREA

Urte hasieran, haize batek Gorramendiko errepitidorea bota zuen. Baztan aldea, telebistarik ikusten ez zela gelditu zen; biharamonean behi-behiniko konponketa egiten zuten. Herritarren ustea berriz hauxe da: behin betirako konpontzera etortzen direnean, Euskal Telebista, Telenorte, frantses Telebista ikusteko modua paratuko dutela hain zuzen ere. Jaki-nik gainera, bere egunean Udalak horretaz hitzarmen zuela eta.



ORONTZEN,

Señorio de Bertiz delako etxaldea. Euskal Herriko parke botanikorik haundiena bilakatu da. Hori erraten da, García Bonak Nafarroako Diputazioari aurkeztu duen txostenean. Kanpotik ekarritako landareak aldakuntza dire, bai bertako autoktonoak ere. Landare exotiko horietatik 116 moeta dire gaur egun. Halaz guztiz ere etxaldearen jabea bizi zenean, landare exotikoetatik haunitzez gehiago zen. Jaun horrek, hil zenean, Diputazioaren eskuetan utzi zuen etxaldea. Geroztik gainbehera etorri da guztia. Zerbait egin beharko da etxalde bikain hori eta barruti diren horrenbertze landare zahar-bikain indarberritzeko.

ERRATZUKO ADUANA ZAHARRA,

1.700 urteko jauregi-etxe bat da. Bera bezalakoak beste bi daude eta monumentu historikoa bezala izendatua dago. Bainan, penagarritzko itxura hartzen ari da. Itaitzuren ondatu diote alde bat eta horrela uzten bada, hemendik denbora gutxitara lurrean dago. Zer edo zer egin beharra dago, nahi eta nahiez. Orain arte egindako gestioak ez dute ezer aurreratu. Zertaz? Ba, etxe hori «patrimonio del estado» delakoz, eta estatuarena baino zuzenago, militarrena, eta beren eskueta-

takik uzten ez dutelakoz, naiz eta etxea abandonatua izan. Dena dela, Erratzun talde bat sortu da jauregi-etxe horri konpon bide bat emateko.

HIRIGINTZA KOMISIOAREN MALTZURKERIAK

Zertan ari da Baztango Udal hirigintzako komisia? Herritarrek ez dakite edo hobeki erran eta, ez dute ulertzen. Zeren eta Amaurko guardia zibilen kuartela zena, artistikoa eta

ishorikoa izanik bota egin baitutu. Be-lateko «Venta Quemada» berriz, Diputazioak bota du udalaren baimenik gabe, hala ere U.P.N.ko zinegotzi bat bertako teilak garraiatzen aritu omen zen eta behar bada bera jakinen ginean egonen zela pentsatzen da. Gauza hauetaz aparte, udalaren baimenik gabe txaborak egiten uzten ari dira bertako hirigintzako arauak errespetatzen ez direlarik. Beraz, Baztango Udalean gertatzen ari dena zera da: zabarkeria hain zuzen ere.

ARANTZA

Arruzti

BORTZ HERRIETAKO ERITEGIA

Lesakan egin behar da. Projektu eder-rra benetan: 4 espezialista diren sendagileak, ekarri nahi dute; instalazioak ere ugari dire. Hasieran beinpen, dirua Diputazioak paratzen du.

NEKAZARIEN KOPERATIBA

Arantzako nekazarien koperatibak, asanblada orokorrean bildu eta lokal berri bat erostea erabaki du. Koperatiba honek pentsua eta baserri tresnaz ornitzen ditu sozio diren nekazari guztiak.

Lehenengo alkilatuta zeukaten lokala oso txikia gelditu da eta momentuko beharrak betetzeko oso eskaxa da. Oraingoak 250 m. kuadratu izango

ditu. Pentsua eta baserri tresnak al-mazenatzeko zerbituko du oraingoz. Hala eta guztiz koperatiba honen burutan dago, denborakin errota bat erostea eta siloak jartzea, eta beste obra asko egitea. Horrela bertan egingo litzateke nahi den klaseko pentsua eta baserriarrari frankoz ere merkeago aterako litzaioke.

Bainan denak ez dituzte ikusten proiektu berri honen garrantziak, sozio batzuk nahiko haserre daudela dirudi. Horrenbesteko inbersioak ezinezkoak direla, ez dela rentablea, partikularrari erosi eta merkeago ateratzen dela eta beste zurru-murru asko badabila nekazari batzuren artean.

Jakina, garbi dago, hemen ere interesak jokatzen dute. Pentsua saldu nahi, pentsuakin negoziatu nahi eta badakizue; koperatika batean ez dago inolako negozio biderik.

SALAKETA

Orain dela 2 urte, orduan Arantzako Alkate zen Vicente Arocena-k 7 lagun salhatu zituen Nafarroako Gobernadore Jaunareen aurrean. Vicente Arocena-k Gobernadoreari eskatu ziona hau zen: «Ahal zen zigorrak haundiena ezartzeko lagun hoieri». Udaleko pleno batean kristoren iskanbila sortu zen gurasoek eta herriko jende gehienak Arantzako irakasle guztiak elebidunak izan zitezela eskatu zituzten, baina Vicente ez zuen hau onartzen eta salhatu zituen 7 lagunak. Gobernadoreak 3 milapezetako zigorra jarri zien baina honen aurka herriak gogorri burrukatu zuen. Eta 7 lagun hoiek ez zuten ordaindu. Bainan Gobernadore Jaunak gutun baten bidez «Por la via de apremio» zigorra ordaindu eraziko diela argitu du. Horri buruz Udaletxeko bileran onartu eta Gobernadoreari bidali zaio salatuak ez dutela inolako errurik, dena Vicente Arocenaren benganza bat izan zela eta biziki eskatzen dio zigorra

kendu eta pakean uzteko. Azkeneko berria izan duguna hau da: Gobernadoreak ez dituela zigorrak kenduko. Hauek «Firmeak» direla eta lehen esandako «Por la via de apremio» ko-bratuko dituela.

ATENTATUA OTE DEN

Aurreko egun horietan alkate izan-dutako, Vicente Arocenaren oilote-gian biz-palau oilo hilik agertu omen dira. Herri mailan «Kristoren» bu-rrunba dabil. Batzuk, pozoitu dituzte-la apropos, beste batzu goserik hil di-rela, besteak GAL izan dela..., eta auskalo! Nolanahi herriko «CIA-k» hartu du kasu hau argitaratzeko. Hor dabilta anka arrastoak ikusten. Hauetik batek zionez berrogeitabos-teko zapataren arrastoak aurkitu omen dituzte, besteak astoaren pe-rrak... Oraindik gauz garbirik ez dago.

Eha! Datorren artikulua agertu or-duko zerbait berri gehiago dakigun.

ETXALAR

Jadanik, E.T.B. Etxalarren

Jadanik ikus dezakegu Etxalarren E.T.B. Aurretik Herri Taldeak aur-keztatu zuen mozioa Udaletxean, errepikagailuaren balioa berorrek or-daindu zezala eskatuz. Udaletxean berriz, gehiengoa duen taldeak («In-dependientes?») ez zuen onartu mo-zio hori. Talde horrek dioenez, «hori baino arazo garrantzitsuagok?» omen ditu gure Herriak eta.

Egoera horretan, Herri Taldeak agiria zabaldu du zera eskatuz, errepikailua paratzearekin ados dauden guztiek, eman dezaten beren izena; azkenean balioaren zati bat denen artean, «eskote» bidez ordaintzeko baita (150.000tik 78.000pta.)

Herri Taldekoek azaldu digutenez, beren jernalak «obra sozialetarako» ematea aspaldidanik erabakia zuten. Aldi honetan, errepikagailua ordaintzeko. Diotenez «Etxalarren bizi garen guztiok, gure nortasuna ez galtzeko, behar-beharrezkoa dugu euskarari ofizialtasuna ematea, eta modu be-rean Telebista ere euskaraz ikusi, ze-ren eta, oraindik behintzat, Telenorte eta Telenavarran baino ugariago ent-zuten baita euskara Euskal Telebistan.

IRAKASLE ERDALDUNAK EUSKALDUNTZEN.

Nafarroako Foru Diputazioak, la-nean ari diren E.G.B.ko irakasleei ikastaro intentsiboa antolatu die, eus-kara ikas eta landu dezaten. Ikastaro hori, martxoan hasi eta ekainartekoa izanen da. Epe honetan, Irakasle ho-riek lan guztietatik libre izanen dira eta ordezkioak kontratatuko ditu Di-putazioak.

URROTZEN

Leurtzako uharkan hartzen diren ne-gel pilagatik, salaketa egin dute Iruñako ekologistek. Negel mota hau, Nafarroako iparraldean, inon ez bert-zerik omen da gelditzen. Arraultzak paratu baino lehen hartzen direlako, arriskua badago negel hauek betirako galtzea. Ekologistek, baita paratu dute Iruñean 2.105 zenbakia duen posta-partatua hauek bezalako eta bertze naturaren aurkako eginkizunak salat-zeko.





UDALAK «GUDA LIKIT-SA»ren AURKA

hartu zuen erabakia, ezeztatu etagibelerara bota du Iruñako Sala de lo Contencioso delakoak.

ENDALTSAKO KUARTE-LAN

obrak hasi dira Berako udalaren baimenik gabe. Horrelako hertzetan gertatzen den bezala, isuna ematea erraten zuten zinegotzi batzuk, baina pleno haretan alkatea ez zelakoz hau ez zen posible izan. Berako kuartela zabaltzeko, baimena eskatu dute eta udalak ezezkoa eman du, lur hoiek herdegunea direlako.

ALHONDIGA ALA LANBI-DE ESKOLA

azken urteotan izan den etxea, hor dago berriz ere Udalaren eskuetan erabilera berri bat noiz emanen zaion esperoan. Bitartean EPA koek eskolatarako gela batzu hartu dute. Baita Berako errektorak jostetarako sala paratu du etxe honetan. Baita ere dutsak, azken egin zen ziklo-kross txapelketarako erabili ziren. Eta haunitzen eskuetan dauden gauz guztiek bezala honek ere abandonuaren martxa hartu du. Horrela bada, Udalak zaindu eta garbitzeko erabakiak hartu ditu eta aurtengo presupuestoetan, teilatua konpontzeko miloi bat terdi paratu du.

BERA

LEHEN «LAKET» TAL-DEAN

kitarra jotzen eta orain Euskadi Irratian musikaren komentaria bezala ezagutzen dugu «Kaki»-k «M-ak» izenburuarekin diska bat ateri du. Eta nola ez!, disko hau egiteko Irantxu, Mikel, Fernan eta Xabierrek lagundu diote.

BAI GUSTORA EGOTEN DELA IAMOTENEAN

Epel, epel giroan, herriko jendeak afaltzen, mahai jokuetan edo ardo bat edaten, armoni onean. Jeitxun 9 miloi terdi kostatu da etxe hau eros eta konpontzea, eta ikustea bertzerik ez dago, hagitz lan ederra egin dela errateko. 213 harpidedun berri badira, gehienak haur gazte, eta ez da harritzekoa, leku aproposak baitituzte jostatzeko ala beren bilerak egiteko. Iamoteneko lan gehienak bukatu direla eta, indar guztiek herriko kultur eta kirolaren alde jokatu nahi dituzte, horrela diote «Gure»ko buru egiten dutenek.



BERAKO IKASTOLAREN

83ko kontuak eta zenbait bertze berri emateko, bilera orokorra egin zuen Martxoaren zortzian. Joan den urtean 2.109.590 pezetetako defizita izan zuen eta aurtengoz 1.674.000 pezetetako defizita espero du. Nafarroa Oinezi esker gai gehiago dute eta hagitzez hobekiago ari dira lanean. Ikastolatik kanpora, beren inguruan ezagu dezaten, igandeetan haur eta guraso guztiok elkarrekin mendira joaten dira eta hilabetean behin bertze herri batetara joatea erabaki dute. Euskaraz orain arte ikasi duten neska-mutilak, ikastolatik aterita lanbide eskoletara ala BUP egitera joanen direneko, euskaraz jarrai dezaten gestiotan dabilta; dagoeneko badute Euskal Jauriltzaren hitza emana Hondarribi-

ko Lizeoan, Elizondo, Lesaka, eta Berako ikastoletako ikasleentzat 20 leku izanen direla. Legalizazioa lortu dutela ere erran zuten; hainbertze lan kostatzeko paper txar ofizial honek diru laguntzarako zerbait balioko duela uste dute. Baita idazkaritzan hutsik gelditu zen lekua, Marisa Apeztegiak bete zuen.

JOAN DEN URTEAN AHUNTZEK

kalte izugarriak egin zituzten gure mendietan eta aurtun gauza bera gerta ez dadin, udalbarrutian aurkitzen diren ahuntzak, hil eta eramateko baimena eman du Udalak. Ahuntzak, batzuk Iparraldetik etorriak dira baina gehienak bertakoenak dira. Erratekoa badago ere ihaz udalak landaretan 1.400.000 pzta. gastatu zituela.

guda likitsa guerra sucia
baimen permiso
isuna multa
zinegotzi concejal
berdegune zona verde
lanbide eskola escuela profesional
eskuleku manillar
txirringa rueda
lasterketa carrera
udalbarruti terreno comunal
arpidedun socio
bilera orokor asamblea general
Euskal Jauriltzaren Gobierno Vasco
ikasle alumno
lortu conseguir
idazkaritza secretaria
antzerki teatro
antolatu organizar
bikote pareja
talde grupo
berebil coche
historiaurre prehistoria
aurkitu encontrar
kriseiluak lamparilla
betile pestaña
txalotu aplaudir



ORDU EXTRARIK EZ!

Lesakako Laminaziotan, gaur egun ordu extrak egiten ari dira, hala irailen 10.161 ordu egin ziren, urrian: 13.449 eta azaroan: 12.451. Batzuk, lan postua izanik eta bere jorнала irabaziz aparte ordu extrak egiten ari dira; horrela, enpresa horrek bere interesak mantendu eta ondorio bezala langabezia sortzen du. Ordu sartzen ari diren horiek ez dute inongo borrokarik eginen soldatak goratzeko ordua irixten denean, eta bertze aldetik Baztan-Bidasoan badira 1.000 lagun langabezian daudenak eta ordusartzaile horiek direla medio ez da lanpostu berririk sortzen.

LESAKA

AZKENENGO SAN ANTONAK?

Endara auzoan San Antonak igande egunakin, uztarrilaren 22 an ospatu zituzten. Oiertzuarrak eta Lesakarrak urtero besta hori egiteko elkartzen dira. Aurtengoa, azkeneko aldiz izanen ote den bildur zen jendia, izan ere presa edo uharka egiteko asmoak aintzineratzen bait doaz eta hango baserri, txoko eta landak urpean geldituko bait dira.

UDALAK, EUSKAL TELEBISTA ETA U.H.F.

Udalak, E.T.B. eta U.H.F. ikusteko errepikagailua paratzea erabaki du. Denetara 100.000 pzta. gostako da.

HIRIGINTZAKO PLAN OROKORRA

Hirigintzako plan orokorraren babilioa 1.983 an bukatu zen. 1.981 ko apirilaren 22an, lehengo udalak, Joaquin Zubiria arkitektoaren taldeari plana berriak prestatzeko lana eman zion, aurretik erabaki hau hartzeko urte bat pasatu zelarik. Bada bi urte talde honek lana hartu zuela. Hamalau hilabete buruan projektua egin zuen eta joan den ekaina arte hirigintzako plan orokorraren ikustaldirentzat epe bat izan zen. Ondotik alegazio eta proposamenetako garaia etorri zen, eta 29 alegazio agertu ziren. Hauen artean

Apezetxea jaunarena ADU 13 izenako proiektuari eta Laminaziokoari, azken hau denetatik latzena. Ikasketak dio, komentu aldea kirol eta ibilaldietarako lekua izan behar duela; fabrikak berriz, here zabaltzerako lur hoiek be-

har dituela eta komentua alda daitekeela, dio. Udalak, lanak hagitz lan-duak eta garbi dauzka; erabaki politikoa hartu eta definitzea falta du bakarrik. Etxe tiki, bizitza batekoak egiteko, komentu aldeko mendi bizkarra

berexi da, eguzki aldea dela eta. Al-kaiagan ere etxe tikiak egiten ari dire eta Nabaz auzoan karretera egin de-nez gero, haien artean hagitz bereix diren etxeak egin daitezke.

EUSKAL HERRI ETA MUNDUAREN BARRENA

NEKAZARIAK BIZ- KAIAN

baserrian bizitzea larri ezinezkoa bezala dagoela eta Madrilera jo dute. Horrela bada behi aziendentzat pentsua ez zela ehunetik 15 baino gehiago igoko eta ehunetik 25eraino igo zen joan den urtean. Madrilgo Gobernuan diote Urriaren baterako esnea ehunetik 8,17 gehiago ordainduko dutela; haragia berriz ehunetik 7,23 gehiago. Baita gasoleoa, ongarriak eta argi indarra igoko dituzte ehunetik 12,5 eta txerrien pentsua ehunetik 13 bateraino. Gobernuaren hitza ez da betetzen zeren denetara botata dagoneko 12,5era igo dituzte prezioak baserritarrek erosi behar dituzten gauzetan eta ehunetik 8,5 baino gehiago ez zirela iganen erran zuten. Honetatik aparte kontuan eduki behar da aurten seguroak ehunetik 40 gehiago ordaindu beharko direla. Horrela bada, beren protesta entzun dezaten, traktoreak hartuta, Bilboko kaleetan manifestapena egin zuten, Otsailaren 4ean.

HILOTZAK ERRETZEA

errauspen ohitura aipatzen hasi da gure herrian. Nahiz eta legeak erran miloi bat goiti bizilagun duten hiriak sulabea izan behar dutela, Español Estatuan bakarrik bi dira, Madrilan eta Zaragozan (azken hau oraindik martxan jarri gabea).

Lehen ez zen horrela egiterik; Elizak 1.964 urte arte ez zuen onartu hilak lurrera itzultzeko modu hau; bertz aldetik sulaberik ez zen, eta gainera jendeen gogoan ohitura hau ez zen begi onez ikusten. Ekologista, naturtzale eta gehienbatez ekialdeko zenbait filosofien jarraitzaileek, gaur egun gero eta gehiago dira errauspenekin ados daudenak. Tramiteak etxekoen eta bi


sendagileren baimenekin betetzen dira. Hilotza metalarik deus ez duen, egurrazko kaxa batean behar du izan. Erretza, ordu bat eta laurden edota ordu bat t'erdiz, elektrizitate eta gasa-kin egiten da. Errausak metalazko kutxatila batean sartzen dira eta ondodotik etxekoei ematen zaizkie. Etxekoek nahitanahiez hilerrira eramien behar dute, legeak horrela egintzen duelakoz. Baldin eta etxera eramatea posible bazegoen, ohitur honek indar gehiago hartuko luke.

ZIZARE GORRIAK

hazten ari da Nafarroako Gares herrian Guillermo Garcia jauna. Kaliforniako zizare gorriak dira eta baditu horietatik 2,5 milioi. Zimaurrea jaten dute eta zimaurre hori ongarri organiko bilakatzen da, alor eta zelaietan zabaltzeko apartekoa, oso ongarri bikaina baita. Jaun honek lur sail bat nahi luke eskuratu Mendigorrian, hortxe,

hogeia lagunekin kooperatiba sort eko. Beronen ustez 60.000 zimaurre kilo sortuko lituzke, kooperatibak, egunero. Ehun milioi zizare erostekotan da. Bi urte barru, horrela, 3.200 zizare izango lituzke, gogotik ugaltzen baitira. Kontuz ibil daiteke, honenbeste zizarek kooperatiba bera ere jango baitiote.

ongarri abono
manifestapena manifestacion
hilotz cadaver
errauspen incineracion
hiri ciudad
sulabe crematorio
onartu admitir
ekialde oriente
baimen permiso
erraus ceniza
hilerrri cementerio
sendagile medico



**AUDENASAKO
KONBENIOAREN
DEROGAZIOA**



ZUHAITZAREN EGUNA:
ZERGATIK JOAN DE URTEAN JENDE GEHIAGO ZEN?
EGURALDIGATIK BAKARRIK OTE ZEN?

ESKOZIATIK EROSITA
450.000 pzta. ordainduz, Diputazioak izokinaren 50.000 arraultze paratu behar ditu Bidasoan Amuarrainek eta aingirek arraultzeak ez jateko, pistola elektriko baten muturra urpean sartuta, tontatuak ateri eta eramaten zituzten. Horrela ikusi genituen arrain zaintzaileak Xubixabal eta Petrix Errekan ari zirela.

**Depuradorak
noizko ?**



IZOKINEN ERRUTARAZTEA

BARATZAREN ANTOLAKETA

Herri hauetan aunitzek badu baratza. Baratzak denbora asko kentzen du, baina gustora aritzen da eta... ze goxoa izaten den gure izerdiaz lortutako barazkia!! Gainera hartu berria, preskoa izateagatik, bere propietadeak osorik izaten ditu eta, noski, beti dakigu zer jaten ari garen (gaur egun ez da gutxi), eta dendan baino merkeago gainera.

Bentajak ikusiaz, baratza bat

edukitzeak eta bertan lan egiteak merezi duela ikusten dugu.

Baratzarik onenak, egoaldera jotzen dutenak dira, eguzki gehiago eta berogoak izaten direlako. Haizetik gordea bada hobe. Beharrezkoa da baita ere, ura hurbilean izatea.

Behin baratza dugularik, urte guztian barazkia jateko bidea egin behar dugu, gure etxean gustatzen den berdura klasetik paratuaz.

Baratza hori parzelatzekoan, «rotación de cultivos» deritzaiona eduki behar da kontuan. Honekin, lurra ez nekatzea, bertan dagoen janaria ahalik eta hobekiena aprobetxatzea eta gaixotasun gutxigo izatea bilatzen da.

Horregatik, 3-4 urtetako ziklo bat hartuaz parzela batean barazki klase bat edukitzea komeni da urte bakoitzean, eta urtero klase ezberdinak. Klaseak hauek dira:

A: Baba, leka, endivia, apio, pepino, eskarola, porrua, ilarra, azelga, espinaka, tomatea.

B: Aza familikoak, rabano, arbia.

C: Berenjena, piperra, azenarioa, erremolatxa, patata. Tipula eta baratxuria edozein partzeletan paratu dezakegu.

Hiru partzela eginez, kuadro honetan ikusten da zer barazki klase paratu, lau urteko ziklo batetan:

URTEAK

	1- Partzela	2- Partzela	3- Partzela
Lehenengoan	A	B	C
Bigarrenean	B	C	A
Hirugarrenean	C	A	B
Laugarrenean	A	B	C

Partzela hoietaz aparte, beharrezkoa litzateke hazitegitarako toki berezi bat. Haziak erretzeko ura eta beroa behar ditu eta hotzetik gordetzeko modurik errezena, lurretik distantzi batera plastiko bat paratzea da. Distantzi hori emateko, lurrean egur batzuk sartzea aski da, plastikoa gainean eusteko. Eguzkia ateratzekin, plastikoa altxatu egin behar da pixkat, landare txikiak haizea hartu dezaten. Bakoitzak ikusi behar du zenbat erretiratu momentu bakoitzean. Erreza da eta gaur landara dagoen prezioetan, merezi du etxean ereiteak. Gainera, polita da barazkiaren ziklo guztia ikustea eta lantzea.

Komeni litzateke baita ere, klima berezi bat lortu dezakegun beste partzela bat: «inver-

nadero» edo negutokia. Honek, kanpoan atera ezin ditugun barazkiak lortzeko balio du: neguan nahiko letxuga eta San Juanetako tomatea jaten hastea gauz ederra da.

Erresumen bezala: baratza bat antolatzekean, baratzaren

3-tatik edo 4-tatik zati bat, negutoki eta hazitegitarako gorde, eta gelditzen denakin, 3-4 partzela egin, lehen esan dugun «rotación de cultivos» kontuan edukiz.

Pili Intsausti



SEXUAL HEZIKETARI BURUZ

Joan den otsailako 22 eta 27an, Berako eskola nazionalan, sexual heziketari buruz, bi sesio izan dire: «Sexualitatea Haurtzaroan» eta «Sexualitatea Nerabetasunean».

Lana, Elizondon dagoen, Diputazioaren, Famili eta Sexual Eziketarentzat, langileak, prestatu eta eramen du. Gurasoak, lehenbiziko, taldeetan bildu ziren eta beren semeekin izaten dituzten istiluak argitu zituzten. Gero denak elkarturik irtenbide egokiena bilatzeaz saiatu ziren.


Sesio hauetan ikusi dena, lehen ere Lesakan eta Baztanen ikusi zen: gurasoek buruhauste haundia dutela beren semeen sexual heziketarekin, alegia. Beren garaian, gauz hauek pekatuekin eta likiskeriarekin nahastuak eta debekatuak izan baitziren. Sexualitateak, birsorkuntzarako bakarrik izan behar zuen eta antisorgailuak zigortuak izaten ziren. Gurasoek honengatik neke aunitz jasan dute eta beren semeentzat bizi sexual zoriontsu bat nahi dute. «Sexual Boom» deitzen zaion honetan, arazo haundi bat ikusten dute, zeren lehen debekatua eta gordeta zegoena, orain, libre nola-guztiek zainak bota dituzte gure izaieran. Berri, berritik edo hasieratik sexualitatea lantzen hasi behar dugu, honela zoriontsuagoak izango garela ohartuz, eta nola ez! azkenean gure semeengan ere gauza bera adieraziko dugula.

Haurren sexual heziketarako, eskoletan ikasi behar dela be-

nahi utzi eta agertzera bulkatu egiten da (pornografia, «S» filmeak, telebista, literatura, eta abar), eta gurasoak ez daude prestatuak beren garaian semei behar den argibidea emateko.

Eta arazo guztiak garaitzeko ez da aski ordu batzuren lana urteren lana baizik. Legeak, Eliza, komunikabideak, izan zirela medio aunitz urtetako sexual bizi lurperatu eragin digutela, pentsa dezagun, eta gauza

harrezkoa ikusten da eta ikastaroak, haurra eskolan hasi bezain abudo behar direla. Baina denbora berean etxean ere sexual heziketa eraman behar da; haurdunalditaz eta erditzetaz solastea erraza izaten da, baina ez hainbertze ugalkortasunataz ala larrua jotzeaz solastea. Honetarako baita ere gurasoak sexual heziketa bat behar dute, sexual parteen izenak zuzen erabiltzeko eta zenbait berte gauzetako ere.



sexual heziketa: educacion sexual
sexualitatea haurtzaroan: sexualidad en la infancia
sexualitatea nerabetasunean: sexualidad en la adolescencia

irterabide solucion
birsorkuntza: procreacion
antisorgailu: anticoncepcion
zigortu: castigar
arazo problema
argibide informacion

komunikabide: medio de comunicacion
ikastaro: ciclo escolar
haurdunaldi: embarazo
erditze: parto
ugalkortasun: fertilidad



EMAKUMEOK ELKAR TOPATZEN

***Hangoa egin ondoren, herrira etorri
eta zera gogoratu dut: bakarka ezin
dela, emakumeok bakoitza gure
etxean eta gure problematan itoz, ezin
dugula bizi, aski dela.***



***Nik topaketa hauen ondorio zera erran
nahi dizuet: lozorrotik ateratzea
beharrezkoa zaigula, gure burua
altxatzea eta han entzun nuen esaldi
hau hemen erausten dut: herri librean
emakume libreak izan nahi dugula.
Baina nondik hasten ote da bide hori
egiten?***

Leioan Euskadiko Emakumea II, Topaketak ospatu direla eta, ezin egon gure aldizkari honetan horretaz zerbait erran ga-be.

Ez dakit nola adierazi hango berri; neretzat ona eta beharrezkoa izan den neurrian zuei, Bidasoa inguruko emakumeoi, azaldu nahi dizuet.

Egia erran, behin ere ez nuen honelako Topaketan parte hartu, eta jakiteko beharrak eta bertze emakumeekin batera gure egoerak aztertu nahiak Leioaraino (Bizkaia) joatera bultzatu ninduen. Bertze emakumen berri jakin nahi nuen, nondik zebiltzan, zertan ari ziren, zer egoerak kezkatzen zituen, ea nereak ere han ikusten nituen, Topaketak...Topaketak.

Horrela, galdemodu horiek buruan nituela joan nintzen eta jende ezaguna, aspalditik ikustekoak nituenak eta ezezagunak topatzen hasi; Taldeka lanean ariz, hango ponentziak eztabaibatuz, (gai aunitz tratatu ziren, hala biolentziaz, lanaz, emakumea mugimenduaz, egoeraz...)



eta batekin eta bertzeekin solasalditxoak eginez arestian aipatu ditudan galdemodu horiei erantzuna aurkitzen joan nintzen.

Hangoa egin ondoren, herri-
ra etorri eta zera gogoratu dut:
bakarka ezin dela, emakumeok
bakoitza gure etxean eta gure
problematan itoz ezin dugula
bizi, aski dela. Bertzeekin bate-
ra, gu bezalakoeekin, emakume-
kin elkartu etagure burua eza-
gutzen, baloratzen eta maitatzen
hasi eta ikasi behar dugula.
Nora goazen jakin; zer egin;
nola bizi nahi dugun; herrian,
etxean, eskolan, lantokian, gi-
zonlagunekin nolako bizia egin
nahi dugun, hori, horretaz zert-
xobat pentsatu.

Guk ere historia honetan pa-
peren bat betetzen dugula ikusi
eta aztertu, ezin dugula beti es-
peron, zai, beti dagoena man-
tentzen egon, ezin dugula eta ez
dugula egon nahi, hori ez! Guk
ere gureak egin nahi ditugu, ez
dugu izkutuko pertsonajeak
izan nahi, isilean egon, geldirik,
azken finea zanpatuak izan.

Nik Topaketa hauen ondorio
zera erran nahi dizuet: lozorrotik
ateratzea beharrezkoa zai-
gula, gure burua altxatzea eta
han entzun nuen esaldi hau he-
men erausten dut: herri librean
emakume libreak izan nahi du-
gula. Baina nondik hasten ote
da bide hori egitea?

Goazen ilusio ttikien hori be-
tetzera, gure nahi bat egitera
eta, askatasunaren bidean, el-
kartzera.

ERREKAZABAL



HERRIKO EMAKUME BAT

Emakumeak gure arazo es-
pezifikokoak ditugunez gero
oraintxe ordu da nolabait gure
arazo hauek paper honetan
idazteko eta gure egoeraren be-
rri emateko. Andrea izatea
oso gauza ederra da, nondik ez!
Ba nori ez zaio begia argitzen
emakume eder bat ikustean.
Nik uste denak alaitzen garela
holako pottola polit bat ikus-
tean. Hau denei gertatzen zaigu
eta neri ere bai, naiz eta andrea
izan. Neska polit baten aurrean
pixten zaizkit begiak. Orain
ordea ikusi behar dugu emaku-
me bakoitzak zenbat eta zenbat
oztopo gainditu behar dituen
bere izaera hori, gizartean ongi
ikusia eta onhartua izateko. Ez
noa ere bat feminismoa edo
matxismoa definitzera baina
aunitzetan gizarte matxista ba-
ten azpian gaudela sumatzen
dugu gure bizia ustekabeen eh!
Zertaz hori? Ez diogu pertson
arteko erlazio batzuri eusten
har-emeen arteko erlazioari
baizik. Lehendabizi ikus deza-
gun denon artean pertsonak ga-
rela per-tso-nak eta balorazio
eta analisi honen ondoren da-
torkigu lotuta arra edo emea
izateak dakartzkigun arazoak.


Herri txiki bateko andrea
naiz eta askotan galdetzen diot
nere buruari: zergatik ez ote
naiz mutila jaio neska izan be-
harrean! Bai, horixe bai nahiko
nukela nik aunitzetan herri txiki
hontako mutil bat zer poza!
motel. Ni andrea izanez nere
iritziak ez dira sekulan herri au-
rrean gizonezko baten iritziak
bezala onhartuko eta ni ere
pertson bat nauk motel! Erres-
peta dezagun aurretik pertsona
izate hori eta gero has gaitzen
gure sexualitate harremanetan
sartzen. Sexualitatea ez da
emakumeen xulo hori edo mu-
tilen isats hura, sexualitatea gu-

rekin daramagun pertsonen zati
bat da baina, berriro diot se-
xualitate reprimitu batek da-
karkigun ondorioak moldakait-
zak dira aunitzetan, erremodio-
rik gabeko gaitzak, uste dut.

Maitasuna egitea pertsona-
kin ez da noski pittilin baten at-
zetik ibiltzea, ez noski! Hori ez
da maitatzea; non dago pertso-
nen arteko samurtasuna! pert-
son arteko begikotasunak non
daude? galdu al ditugu birtute
eder hauek? non pertson arteko
komunikatzeko aterabideak?

Neska lagunak, ama zarete-
nok ez zaitezte zoratu isats ba-
ten atzetik eta ez hor amildu,
oraindik emakumeak gai gara
gauz asko gainditzeko, gure es-
kubideak lortzekotan borrokari
eutsi lagunok. Zaindu eta hazi
zuen umeak benetako pertso-
nak izateko eta ez gizon ar eta
emakume-eme batzuek izateko.
Hori berez datorkigu. Denok
heziketa berdinean heziak izan
gaitzen.

ASKAMIN



BERATIK EUSKAL HIZKUNTZAREN JAIOTZA BILA

Euskara nondik datorren eta zeintzuk diren bere senideak ez da oraindik gauzajakina, nahiz jende anitz lan honetan jokatu.

Dakigunez, bere ahaide eta pariente gehienak, ez ba dira denak, hil dira, eta orain ezagutzen ditugun hizkuntzak geroago agertu ziren. Ba dirudi Neolitikoan behintzat (orain dela .000 urte) gure mendi eta zelaietan mintzatzen zela.

Isla bezala gelditurik izatea, senide bila jokatzeko interesa ekarri digu. Lau haizetara jo dugu berdintasunak bila: Iberoekin, Ipar Afrikako mintzairekin, Kaukasokoekin, semitikoekin, sumerioarekin... deus handirik aintzindu gabe, arrasto trixte batzuk besterik ez bait genituen aurkitzen. Behar bada zein hizkuntzekin deus ikustekorik ez dugun ba dakigu, baina, zeintzuk dira gure senideak?

Hau ikusiz, interesgarria da, eta inolaz ere beharrezkoa, bide honetan egiten diren edozein lantxo kontutan hartzea eta ez bat bakarrik ere alde batera uztea.

Honek dakarkit ba nire artikuluko honetara: Beratar bat saiatu zen lanotan. Ez zuen gaia hau inbestigazio bakarra eta berezi bezala hartu, beste bere burulanetan ari zen bitartean aurkitzen zituen arrastoak kontutan edukiz baizik. Noiz behinka zerbait interesgarri ikusten zuenean paper txikitxo batzutan idazten zituen eta gerorako gorde: nozbait posible baldin ba zuen, lantxo umil bat argitaratzeko. (Lan umilak ez du lan txarra edo trixtea esan nahi, arritzeko modoko jakintasun eta trebetasuna agertzen bait da bere paperetan).

Esan bezala, bi artikuluko argitaratu zituen beste lan anitzen artean antologia batetan, eta gero, separata bezala. Gaur egun ez da erraz inon aurkitzea, eta lan hoiak berri galdu da, bere lagun eta adiskideetandik aparte.

Juan Errandoneaz ari naiz, Zigardi-bereko semeaz. Lanak **ANTHOLOGIA ANNUA** Roma, 1953-an agertu zen lehen-dabizikoa eta bigarrena: Separata del número 3, **ANTHOLOGIA ANNUA**, Iglesia Nacional Española. Roma, 1955-ko urtean.

Artikulutxo honen bidez, nahiko zaila nire ustez (hortaz bar-kazioa eskatzen dizuet) ez diot behar den baino garrantzi gehiago eman nahi Juan Errandonearen lanari —ez bait zuen segidarik izandu bere heriotzagatik—, baina berrarrezkoa iduritzen zait Beratik euskararen senidetasunari buruz egin den ikerketaren berri ematea.

Problema handiak aurkitzen zituen honelako lan bat planteatzean: a) Azkeneko 500 urte arte euskarazko dokumentorik ez izatea. b) Zer hitz lehengo euskarakoak izatea edo geroago



ZIGARDI BERA,
JUAN ERRANDONEAREN BASERRIA

beste hizkuntzetatik hartuak jakitea.d) Zer berdintasun aurkitu mintzairan artean senidetatsuna onartzeko.

Azkeneko galderari erresponderitzeko edo erantzuteko hau behar dela uste zuen: Hitzak forma berdina izan eta sentido edo esanahi bera. Bietatik bat falta izanezkerok ez litzateke ontzat hartu behar.

Eta zein ote dira lehengo euskararen erabiltzen ziren hitzak? Juan Errandonearen ustez gaur egungo sail bat, batez ere gorputzeko parte ezagunenak eta oinarritzko ideiak izendatzen dituztenak: nola, itzal, zulo eta atzapar (atzapra).

Non demontre ager zitezkeen horrelako hitzen antzekoak orain dela 6.000 urte?

Hara nondik-nora Irak dagon lekuetan mintzatzen zen hizkuntza batzuetan aurkitu zituen.

(Gauza bat kontutan hartu beharko genuke hasierako: zenbait hizkuntz semitikoetan letra bokalak (a,e,i,o,u) idaztean desagareztatzen ziren, kontsonanteak indar handia izanez).

Honela, ITZAL-en kontsonanteak bi dira: TZ/L.

Zer hizkuntzetan ITZAL-en

kontsonanteak agertzen dira, sentido edo esanahi berdinekin?

Orduko mintzaira multzo bat begiratu ondotik arrasto pila bat sumatu zuen: a) Akadiko hizkuntzan agertzen da: TZiL -TZiLu -TZuLu. (Kontsonanteak bakarrik kontutan hartu)

b) Ugarit—ekoan: Z/L. euskarazko sentido berarekin.

d) Sumeriako hizkuntzan eskritura edo idazkera kuneiformetan agertzen da, eta hau da ITZAL-ena: . Etxe baten antzekoa. Argi dago zerbaitek itzal ematen badu, etxea dela. TZaLu leitzen zuten; beti kontsonante berdina!

Gehiegi luzatu gabe, gisa berean Juan Errandoneak ikusten ditu juduen mintzairan eta arabeen ere. Ez da bada arri-garria hizkuntz hoiek hil direla eta geurea oraindik zutik!

Itzal-ekin egindako estudio berdintsoa ZULO hitzarekin ere egin zuen. Laburtuz honela izanen zen:

Bi kontsonante ditu: Z/L.

Sumerioek ikurra hau egiten zuten , ZuL izena emanez. Dirudienez putzu baten ahoa edo zuloa esan nahi zuen.

Akadioek ere solas berdina, ZuL, erabiltzen zuten, eta gainera UB eta BeRu; parekoak ote ditugu gure ZULO OBI eta BERA, gauza berdinak esan nahi bait dituzte? Ez zuen lana hori egiteko denborarik izandu.

Juan Errandoneak egin zuen lanaren bidez ez zuen nondik zetorren euskara edo hau eta hizkuntz haiek berdinak zirela esan nahi, momentu batetan antzekoak zirela eta, behar bada, beste hizkuntz-guraso bat izan zutela baizik. Noiz? Ez dakigu.

Lantxo hau bukatzera noa. Berriz ere barkazioa eskatzen dizuet, batzuentzat aspergarria izan naizelako, besteentzat artikulu xinpleegia delako; gizon baten lana argitaratu nahi nuen, besterik ez. Juan Errandonea bezalako anitzekin geure hizkuntzaren ezagura argitzen da, larrainan gordetzen diren arrastoak bilatuz. Oraindik ere anitz falta zaigu!

Urteak geroago, ATZAPAR-en gain beste ikerketa bat egin zuen. Behar bada noizbait haren berri emanen dizuet.

LANDAXOKO

BERAKO ZENBAIT ORDENANTZA ZAHAR

Nafarroako Artxibo Oroko-eko «Protocolos Notariales» delako sailean, Berako Erregimenduaren ordenantza batzu aurkitu dituzte C. Idoate eta J.J. Villanueva-k. Agindu horiek erretoreak irakurtzen zituen elizan, herritarrek jakinaren gainean egon zitezen.

Paperak ez du erraten zein urtetakoa den, baina ordenant-

zen edukia kontutan harturik, badirudi guti gora behera duela berrehunen bat urtekoak izan direla.

Hona hemen hitzez hitz, eta orduko ortografia errespetatuz, zer zioten ordenantza horiek:

«VERA. Publicación que, al principio de cada año, hace el rector desde el púlpito, en bascuense, por orden de la villa de Vera.



BERAKO LORRATZAK

1.- Alcate ta erregidore yau-nac aguintzen dute, erriyaren dermiotari ebaquiyac dauden arbola guciyeq, eramen detza-tala bacochoac ychetara, edo obrac eguin biar ttuzten lecura amabórz egunen barrenian, ta bertzela Erregimentubac artuco dubela biarden providenciya.

2.- Eztezala ñiorc ebaqui ar-bolatan adarriq, bi ducaten pe-nan aldiya bacochoac, eta une-taz gañara yzanen dire castiga-tubac Erregimentubaren dispi-siciora.

3.- Landetaco, e bertze za-rracubac compon dittezela usatzen den bazala, zortzi egu-nen barrenian, bertzela Erregi-mentubac ongui erazico ttubela yabien costura.

4.- Landetaco yabiac quen detzatela bidian ybiltzeco traba egitten duten otiac, ta llarrac, zortzi egunen barrenian, bert-zela Erregimentubac eraguiñen dubela oquin costura.

5.- Ñiorc eztezala ogui biriq erosi Errico ychian descargatu biño lenego, bi Dugaten penan aldiya bacochoac.

Ñior arrapatzen baldiñ bada Provenciya daramala ogui biya, edo Errira yzanen dela castigatuba, Leguiac disponit-zen duten bazala.

Alcate yaunac aguintzendu, Erronda eguiñ ezquero erretira dittezela guciyeq, eben ychete-ra, beretan, ta carricatan guel-dittu gabe, yrrinciariq eguin ga-be, ta cantatu gabe, bertzela castigatubac yzanen direla rigo-riarequiñ.

Ezadiyela ñior pasatu Veraco auzotiq Alzatara, ta ez Alzatatic Verara Erronda eguiñ ezquero, bada arrapatzen badire eben Auzotiq campuan yzanen direla castigatubac rigore guciyare-quiñ, ta baliyoco escusariq ba-tere.

Eztadiyela ñior ybilli arpe-guiyac estaliriq ñiauteriyatan, ta ez bertze demboraz, bertzela yzanen direla castigatubac.

Elizaco funciuac errattian ez-dadiyela ñior ari yocuan, ta ez Pillotan, bi Pezetaren penan, ta egun bateko Garcela.

Tabernariyac eztezatela eman ardoriq ta ez yatera ofre-ciuac errattecó demboran.»

Ezagun denez Berako hizke-ran emanak daude ordenant-zak; eta hainbertze urte pasatu gatik, gaur egun ere modu ber-dintsuan egiten da solas Beran. Erraterako, gaur ere Berako euskaraz, hitz bat «i» bokalaz bukatzen denean (herri, aldi, arpegi, inauteri...) eta ondotik «a» (edo «e») bokala iraxten zaionean, bi bokal horien ar-tean «y» bat hartzen du eta he-rriya, haldiya, arpegiya, inaute-riya... erraten dugu. Orduan ere halaxe egiten zen testu horretan ikus daitekeenez: «erriyaren», «providenciya», «aldiya», «ebaquiyac», «ñiauteriyac», «guciyec», etab.

Badira hitz franko gaur beza-la erraten zirenak Beran garai hartan ere, hala nola:

-«Eramen» eraman
-«ogui bi» gari
-«eben» beren
-«yche» etxe
-«ttuzten» dituzten
-«biño» baino
-«dire» dira
-«Alzatata» Altza-

tera

-«oquin» hauen,

etab.

Aldi berean, aldaketa ttiki batzu ere aipa genitzake, erra-terako, hitz bat «u» bokalaz bu-katzen denean (buru, erregi-mentu, kastigatu, du...) eta on-dotik «a» (edo «e») bokala irax-

ten zaionean, gaur egun bi bo-kal horien artean ez dugu inol-a-ko letrarik sartzen eta burua, erregimentua, kastigatua..., erraten dugu; baina orduko euskarak bi bokal horien erdian «b» letra sartzen zuen testu ho-rretan ageri den bezala: «Erre-gimentubac», «castigatubac», «zarracubac», «dubela», etab.

Bertze aldaketa ttiki bat «in» letrez hasten diren hitzetan azaltzen da, bi letra horiek al-derantziz edo metatesia eginez ematen baitzituzten. Horrela:

-«ñior» inor (horrela agertzen da aldiero).

-«ñiauteriya» inaute-ria.

Azkenik, hitzen erranahiari buruz, ez dago zailtasunik, hitz guziak erabiltzen baitira gaur ere Beran, baserritan gutienez. Dena den, hona hemen batzu-ren erranahia:

-Dermio término, te-rreno.

-Dukat ducado
-Zarracu campo cer-cado

-Usatu acostumar-se

-Erazi obligar, reali-zar

-Ogui bi trigo
-Provenciya Guipuz-coa; berez «Probintzia» Gipuz-koari erraten zitzaion

-Beretan en los bajos de la casa.

PATXI



EUSKARAREN PRESENTZIA GURE ESKOLETAN

ELIZONDO KONTZENTRAZIOA

IKASTOLA

	EUSKARAZ	ERDARAZ		EUSKOLAN	%	ERDOLAN	%		
ESKOLARRERA	16	41	57	27	47	30	53	69	
1. maila	4	31	35					28	
2. "	7	28	35	31	44	39	56	30	
3. "	4	32	36					26	
4. "		54	54	90	61	58	39	23	
5. "		58	58					20	
6. "		118	118					11	
7. "		115	115	208	68	98	32	9	
8. "		73	73					7	
9. "		16	16	10	62,5	6	37,5		
TOTAL	31	566	597	366	61	231	39	223	

IKASTARO ESPEZIALA

ESKOLARRERA ETA O.H.O. 5. MAILARAINO, ELIZONDO, ELBETE ETA ANIZKO HAURREK JOATEN DIRA.

O.H.O. 6,7, eta 8 MAILATARA BAZTAN OSOKO HAURRAK.

Ikastaro espeziala.

Eskolarrera eta O.H.O. 5. mailaraino, Elizondo, Elbete eta Anizko haurrak joaten dira.

Elizondoko Lanbide Eskolan 215 ikaslek, astean bi ordu izaten dute euskaraz.

Bailaran diren 21 ikastolgetatik, 11 erdaraz dire, 4 euskaraz eta 6 erdizko.

Euskaraz mintzatzen diren 27 ikasleetatik, bakarrik haietatik 16 beren amaren hizkuntzan es ikasten ari dire.

	ESKOLARRERA	O.H.O. 1 2	O.H.O. 3 4 5	O.H.O. 6 7 8
Arizkun	Erda.	Erda.	Erda.	
Errazu	Erda.	Erda.	Eusk.	
Maya	Eusk.	Eusk.	Eusk.	
Azpilkueta	Eusk.	Eusk.	Eusk.	
Lekaroz	Erda.	Erda.	Erda.	
Gartzain	Erda.	Erda.	Erda.	
Irurita	Eusk.	Erda.	Erda.	
Arraioz	Erda.	Erda.	Erda.	
Ciga				
Orenoz	Erda.	Erda.	Erda.	
Almandoz	Erda.	Erda.	Erda.	
Beartzun	Erda.	Erda.	Erda.	
Baigorri	Eusk.	Eusk.	Erda.	

● Erdizka, erdi euskaraz erdi erdaraz.

Elebidun, bi hizkuntz errextasun berakin menderatzen duen hura da, irakurtzetan, adierazpenan eta asmakizunetan.

Haurrentzat oberena da bere amaren hizkuntzan eskola ikastea, zeren eta hizkuntza hau da eskolara ailegatu denean menderatzen duena.

BERA KONTZENTRAZIOA

IKASTOLA

	EUSKARAZ	ERDARAZ		EUSKOLAN	%	ERDOLAN	%		
ESKOLARRERA	26	20	46	29	62	17	38	67	
1. maila	7	7	14	15	52	16	48	34	
2. "	-	19	19					23	
3. "	-	21	21					24	
4. "	-	18	18	30	46	35	54	28	
5. "	-	26	26					18	
6. "	-	43	43					23	
7. "	-	54	54	96	66	49	34	15	
8. "	-	48	48						
TOTAL	33	256	287	170		117		232	

	ESKOLARRERA	O.H.O. 1 2	O.H.O. 3 4 5	O.H.O. 6 7 8
Etxalar	Eusk.	Erda.	Erda.	
Igantzi	Eusk.	Erd./Eu.	Erda.	
Arantza	Eusk.	Eusk.	Eusk.	

O.H.O. ko 6. 7. eta 8. mailatara, Igantzi, Arantza eta Etxalarko haurrak(denak euskaraz badakite) joaten dira.

256 haur hartzen dute euskara asignatura bezala.

Berako Lanbide Eskolan 185 ikaslek, astean bi ordu izaten dute euskaraz.

Arantzaren ordu bat erdaraz ematen dute sei urtetik aintzineraz.

Seigarren kursoa egitera Berara joaten dira.

Lesakako eta Berako Monjetan euskara asignatura bezala ematen dute.

		EUSKARAZ	ERDARAZ		EUSKALDUNAK	%	ERDADUNAK	%			
ESKOLAKURRA		6	9	15		40		60		32	
O.H.O. E.O.R.	1. maila	14	13	27		65		35		24	
	2. "	32	12	44						20	
	3. "	20	10	33						15	
	4. "	32	15	47		64		36		19	
	5. "	23	17	40						16	
	6. "	21	19	40						12	
	7. "	31	13	44		64		36		11	
	8. "	35	18	53						11	
	*										
TOTAL		214	126	340		63		37		149	

SAN MARTIN(Oronoz) 102 ikasle
Euskara asignatura bezala.

BUP(Oronoz) 343 ikasle
EUSKARA EZ DA EZAGUTZEN ERE

Euskaraz ordu erdi bat egunero.

Elizondo, Bera, Doneztebe eta Lesakako eskole-
tan, ikasketak erdaraz edo euskeraz ematen di-
re, haurren hizkuntza zein den kontuan hartuz
eta pixkanaka, pixkanaka(egunero ordu erdi -
bat gehigora joanen dena) bigarren hizkuntzan
hasiera ematen zaio, biek mendera dezan.

Giro erdalduna dela eta, errexago da euskaldun
haur bat erdara ikastea erdaldun batek euskara
ikastea baino.

DONEZTEBE KONTZENTRAZIOA

IKASTOLARIK EZ DA.

		EUSKARAZ	ERDARAZ		EUSKALDUNAK	%	ERDADUNAK	%			
ESKOLAKURRA		37	30	67		65		35			
O.H.O. E.O.R.	1. maila	22	15	37		64		36			
	2. "	17	17	34							
	3. "	23	19	42							
	4. "	23	18	41		80		20			
	5. "	39	38	77							
	6. "	29	51	80							
	7. "	-	82	82		68		32			
	8. "	-	71	71							
	*										
TOTAL		190	341	531		71		29			

		O.H.O. 1 2	O.H.O. 3 4 5	O.H.O. 6 7 8
Sunbila	Eusk.	Eusk.	Eusk.	
Erasun	Eusk.	Eusk.	Eusk.	
Ezkurra	Eusk.	Eusk.	Erda.	
Ituren	Eusk.	Eusk.	Erda.	
Zubieta	Eusk.	Eusk.	Erda.	
Narbarte	Erda.	Erda.	Erda.	

URROZT, OIZ, DONAMARI, ELGORRIAGA, LEGASA, ITUREN,
ZUBIETA, ERASUN, LABAIEN, SALDIAS, ETA NARBARTE OIERE-
GIKO HAURREK JOATEN DIRA.

Urroz, Oiz, Donamari, Elgorriaga, Legasa, Ituren, Zu-
bieta, Erasun, Labaien, Saldias, eta Narbarte Oieregi
ko haurrak joaten dira.

Doneztebeko kontzentrazioan 6. mailaraino euskeraz ikasteko
posibilitatea dago, heldu den urtean 7.a eginen da eta horrela
urtez urtez aurreratuz joanen da.

Herrietan berriz, batzuek euskaraz hasten dituzte bere
ikasketak eta gero erdarara pasa, haurrei mozketak egiten -
zaie, aunitzetan maisu edo maistra euskaldunek ez direlako.
Jakirik Donezteben euskeraz jarraitzeko ahalmena dagoela.

8. mailaraino egin eta euskeraz jarraitzeko, Profesionala,
B.U.P. prestatuta edo prestatzen ari ote diren jakin nahi genu-
ke. Gazte hoiei ongi etorria horrela eginen bait zaie.

Narbarten euskera asignatura bezala
ematen da.

Urrozko, Oizko, Donamariako, Elgorri-
agako eta Legasako haur denak Donez-
tebera joaten dira.

ORAKUNDE



Haur besta horrek bizirik irauten du Baztanen. «EGUN TTUN TTUN – OLLAR DANTZA»

Aspaldiko denbora ināuteak garrantzi haundia zaukaten, egunen izenetan eta ohituretan agertzen baitira gure aintzinekoen ināutetako ospakizunak. San Anton ondoko igandean hasten omen ziren moztorroak eta holaxe igandero ināuteriak arte. Baita ere ināute aintziñeko hiru ortzegunek bazauzkaten beren izenak eta bai berezitasun bat ere. Lehenbiziko ortzeguna «Gizekunde» deitzen zen eta egun huntan gizonak egiten zuten besta. Bigarren ortzeguna «Emakume», andreen eguna. Hirugarren ortzeguna «Orakunde», denen besta eta gero ondotik ināuteriak hiru egun. Aipatu ditudan hiru ortzegun horien ospakizunak aspaldion joan ziren, atzenduak dira, guk ez ditugu ezagutu. Baina «Orakunde» egunak oraindik zutik irauten du eta Baztango haurren besta izaten da eta urtero ospatzen dena. Egun huni «Orakunde» deitzen diote baina Arizkun «Egun ttun ttun» eta Erratzun «Ollar dantza». Baita ere zenbait lekutan «Ostegun gizen» deitzen dute.

Bestak eta ohiturak aldatzen dira eta «Orakunde» eguna ere ezta izanen hain segur gure amaren denboretan egiten zuten bezalakoa. Nere oroitzean duela berrogeita hamasei urte eta inguru hortan, Elizondon gisa huntan ospatzen ginuen «Orakunde».

Egun batzuz lehenago eskolako mutikoak beren maixuakin egiten zituzten bestaren antolaketa. Izendatzen ziren «puske» biltzaileak, sos biltzaileak edo «boltseroak», ollarak ere erosten ziren, bazkari saria ere biltzen zen, hamar sos mutiko bakoxtarendako eta gainerako bestaren xehetasun guziak ere denen artean antolatzen zirela.

«Orakunde» egunean mutiko guziak biltzen ziren eskolan eta denak «prozesionean», bandera aintzinean txistulariekin, maixu, herriko alkate eta apezka, joaten ginen elizara. Meza ondoan herriari itzulua eta «puskek» eta sos biltzen, txistulariek eta mutikoak Aintzinderiekin.

Biltzen zenakin, txistor, zinger, arroltze eta ematen zutenakin, ostatuan bazkaria. Mutiko guziak han bildurik beren maixu eta herriko alkate eta apezka ere denak mai inguruan yarri-

rik. Bazkari ederra egiten zen eta «pinpirrintzen» zirenak ere baziren. Erran dezadan ere neskatikoak ez zirela bazkarian sartzen, hauek arratsaldeko dantzan bakarrik aritzen baiziren.

Bazkalondoan biltzen ginen herriko plazan eta han «ollar yoko» ospatzen zen. Bi talde-tan berexen ziren mutikoak adinaren arabera eta yoko holaxe egiten zen:

Plaza buruan lauze bat kendu, zilo bat egin eta barna hartan ollarra sartu, lurrez estali eta burua bakarrik agertzen zitzaioa. Plazako bertze muturrean mutiko taldea, begiak ohial batekin estaliak eta zurezko ezpata eskuan. Maixuaren esku-zartaren soñua entzunik, denak abiatzen ziren ollarraren bila eta itsu itsuan deus ikusi gabe. Ollarraren burua ezpatakin ukitzen zuena izanen zen irabazle eta ollarra beretako. Ondotik bertze mutiko taldeak berdinekin egiten zuten.

Ollar yokoaren ondotik bertze yosteta batzuk eta azkenean dantza. Lehenik mutil-dantza eta hunen ondotik soka-dantza neskatiokekin, mutiko bakoxtak bere laguna berexirik.

Herriaren barna soka-dantzan itzulua eginik berriz plazara eta hemen ilundu arte dantzan «jota» eta «purrusalda». Gure haur denboran holaxe ospatzen ginuen «Orakunde». Gero ere eta urte aunitzez berdintsu.

Denborak aldatzen dira eta orain eta yadanik baditu hamabortz urte neskatiok ere bestaren barnean sartzen direla eta mutiokekin batean ospakizun guzietan, «puskek» eta sos biltzen, bazkarian, ollar-yokoan, yosteta guztietan, dantzan, mutiok eta neskatiok denak bat eginik. Norbaitek erranen du: Hala behar ere!

MARIANO IZETA






INAUTERIAK

«Neguko solstizioa.

Musika eta
dantza, 'puske' biltzaileak,
zingarra-arraultze; kalian
gora, kalian behera,
zalaparta.

Janzkeran aldaketak;
izaieran ere
jokaera desberdinak».



IHAUTERIAK

Herri batzuk jadanik, ihauteriak egin dituzte, hala Sunbilan urtarillaren erdialdera eta Ezkurran geroxeago.

Ituren, Aurtiz (Iturengo auzoa) eta Zubietak ere bereak egin dituzte. Ihaute hauek bereziak dira. Urtarrillaren azkeneko igandeakin hasten dira eta astelehen eta asteartekoa ikusgarria izaten da. Joaldunak jantzi ederre- z eta joariak joz ateratzen bait dira. Hango joare soinuak! Dan! Dan! Dan! Pausoa hartu eta eman eginten bait zaio. Ohitura zaharra izan arren, bi- zi-bizian eta barri-barrutik darama bertako jendeak. Ihaute aintzinean eta ondoren ere, haurrak etxeetan, kalean eta eskolan ikustea besterik ez dago hori baieztatzeko, badirudi joareak jotzeko gogo hori berezkoa bezala heldu zaiela.

Ohitura denez, Ihaute hauetan astelehen egurakin Zubietarrak Aurtiz-koikin batera Iturenera joaten dira, horrela joakdun saila elkartzen da eta joareak joz herriari buelta enaten dio- te. Biharamonean, gauza bera Zubie- tara joatean, Iturengoak Aurtizkoekin joaten bait dira.

Iaz, Zubietar eta Iturendarren arteak iskanbilak sortu ziren eta ondorio gisa Iturengoak Zubietara joan gabe gelditu ziren.

Aurten, beldur zen jendea, ohitura hori galtzeko arriskua paratu bait zen. Baina haserreak alde batera utzi eta joareak joz pakeak egin ziren. Astele- hena iritxi zen eta Iturendarrak Zu- bieta eta Aurtizkoen bila atera ziren, joakdun zunitz elkartu ziren bata bertzearen gibeletik, denak pauso be- rean, eta asteartean, eguraldiak la- gundu ez zuen arren, Iturengoak Aurtiz-eko buelta eman ondoren eta hango joaldunekin batera Zubietakoa egite- ra joan ziren.

Urtero bezala ospatu dira Lesakan inauteriak.

Bertze urteetatik ez du izan desber- dintasun haundirik, bainan aipatu be- har dire aurten bertako jendeak parte hartu duela, hau urtero bezala baina jende gehiago nabaritu da.

Zaharrak eta gazteak guztiok alka- rrekin ibili dire, eta hau batez ere aste- lehenean.

Astelehena aipatu baino lehen, nahi nuke larunbatakin hasi, larunbatak ez zuen izaten hainbesteko famarik bai-

na jendeak ez zuela bestarik egin ba- zuen denbora franko eta ia laruntean hasi eta tira aurrera. Jende aunitz maskaratu zen eta gainera aipagarria- rena, zera da, jendeak ez duela disfra- zetan dirurik gastatu, ganbaran aurki- tutako arropa zaharrak eta trapu za- harrekin apainduak atera dire mai- ruak, eta nola apainduak;

Pentsatzen dut inauteritan ez dela problema haundirik izaten jantzitze- ko, erdi larrugarritan joan ta ere;

Igandean zako-zahar eguna.

Hogeirenat lagunek parte hartu zuten zako-zahar delako honetan. Galdetuko duzue ia zer den hau ba jendea zakoz jantzitzen da, anka bana- tan zako bana eta gorputza bertze zako batekin tapatua. Zako hauek belarrak betetzen dire eta eskutan zerri pizontzi bat daramate. Aurpegia ere estalia daramate, hau trapu zuri batez eta buruan lastozko sonbrero bat. Aurten lehendabiziko urtea ateratzen zela Lesakako musika banda zako zaha- rrekin. Eta giro berri eta alai bat sor- tuz, kaleetan zehar ibili ziren bi orduz gutti gora bera.

Astelehena egun hoberena. Ba, ohi- tura den bezala karrozak atera ziren. Aurten bertze urteetan baino karroza gehiago, hiru karroza ederra adin zu- zen.

Hiru hauetan parte hartu zuen Le- sakako jende guztiak. Zaharrak eta gazteak, denok batera.

Bertze aldetik Fraindarrak eta goi- tarrak genituen.

Beren akordioi eta trikitixaren soi- nukin hauek baserriz baserri ibili zi- ren.

Fraindarrak Fraingo auzoa eta Izotzaldean ibili ziren eta Goitarrak San Antonen.

Gero herrira jeitsi ziren jatetxe ba- tetan bazkaltzeko.

Bazkaldu ondoren beren musikare- kin kaleetan zehar ibili ziren, edo ho- bekigo erranta ostatuz ostatu barrenak berotzen, hotz handia egiten bait zuen.

Astearte eta asteazkena bi talde hauentzat izaten dira, hauek herrita- rrak baino sasoi haundigo bait dute;

Eta bukatzeko gero, bueltak etort- zen direla pentsa genezake ez dakit... inauteritako ondorea dela edo, Lesa- kan beintzat izugarritzko gripe epide- mia sortu zen, batzuek behintzat inauteen ondorioak zirela, zioten.

INAUTERIAK URTETIK URTERA SENDOTZEN

Ahul xamar hasi ziren «Kaldereros»-ekin, jende guttixko ibili zela iduritu zitzaigun. Ortzegun Gizenean hau- rrak ugari ibili ziren; monjakoak ez bertzerik, haurrek ez zuten eskolarik izan; arratsaldean antzerkia izan zen. Udalak antolatua. Igandean «Inudek eta Artzaiek» urtetik urtera bikote ge- hiagokin eta «beteranoek» berriei le- kua utzi zieten; urtero bezala irri ede- rrak egin genituen haien zirur-miruk ikustean. Baina egun haundiena aste- lehena izan zen, horma zelarik goiz goizetik Zingarra Arraultzeak ateri zi- ren, inongo arropa xebleekin jantzita, mutil eta neska guztiak aldrebeskeri- tan. Botikara pisatzera joan omen zi- ren ere «bizardun atso potzola batzuk» eta batzuk bertzeek «gramo batzuk flakatu zirela» erraiten omen zutan, baskulan zirelarik. Gauean izan zen ikusgarriena: Altxateko karrikan de- netik bazen: pinguino taldea, semafo- roak ibiltzen, gibelka ibiltzen zen begi argidun gizon talde bat, neska dantza- ri pottola-pottola batzu, pedalekin ibiltzen zen berebil zahar bat, interinak, fuerteko gudariak, histo- riaurreko neskak, uli haundi bikote bat, lutoa zeramaten jendeak, sorgi- nak, pasotak, atso zaharrak, kalegar- bitzaileak... denetatik, zernahi pertso- nai aurki zezakeen, pentsa ezazue monjak eta apaizak ibili zirela ere konfesaleku eta guzti. Kanpoan hotza zen era berean ostatueta berao, mu- sika gelditu gabe eta jendea arrotuta, dantzan, saltoka, kantari edo karraisi- ka. Zizka ostatuan harrigarria zen de- korazioa: artaburuak, kandelak, kri- sei luak eta santuak; barran zirenak ere gustu onez apainduak ziren: Inaxok, burua bizar nabalakin soildua eta azafran kolorezko tunikaz jantzia; Irantxu punkez orrazturik, betile luze batzu zeramala, inoiz ez bezain polita zegoen. Altxateko enparantzan Irungo «Ohian» taldeak musika rok jotzen zuen, gazteen gustoa betetzen zutela- rik; txalotzekoa da baita talde gazte hau, euskara, rok mundura eramaten, euskararen alde egiten ari den lanaga- tik. Asteartean, turista pila bat zebila- rik, inauteak bukatu ziren; gidari ba- tek Plazasen Etxe Txikiaren aintzi- nean Barojaren etxea zela erraiten zuen eta turistek tzoraturik begiratzen zuten.

Jende aunitzek horzdurari ez dio inongo garrantsirik ematen, bertze batzuk berriz, irri, solas edo ahozabaltzean agerian gelditzen direla eta apainak eduki nahi dituzte, itsuski ez dezatela egin behinik behin.

Baina, hortz kontua ez da politan edo itsusian neurtzen, sanoa edo erian baizik eta bizian zehar horzdura sanoa izaten hortan dago kokka!

Hortzak zulatuak, gaiztuak, txantxartuak edukiz gero, ahoa eritasun iturri izan daiteke bertze eritasun berri sortu deza-keelakoz. Eta hortz gaiztatu horiek sendatzen ez badira, pertsona bat arrunt gazterik hortzik gabe gelditzen ahal da eta ordezkoak paratzeko aukera izatean ez dago inongo mahukarik, jaujarik.

Txikitako haginek berriz ez dira kontutan hartzen, «berdin gero berria aterako zaio» erraten da baina, hortan ez dago inongo arrazoirik. Hortz berria, sanoa eta bere lekuan ateratzea nahiez gero, txikitako horiek ongi kuidatu behar dira, gero etorriko direnak bezala.

Hortzek, gorputzeko edozein partek bezala bere eginbehar-rrak ditu, janariak txikitzea, murtxikatzen hain zuzen ere. Baina, jaten den aldiro hortz tartean janari ondarrak gelditzen dira eta horiek kentzen, garbitzen ez badira, hortzen esmaltea hondatuz joanen da, txantxarrak sortuz, hortzak zulatuz eta deseginez. Beraz, hortzak sanoak izatekotan batzuk hartu behar dira eta horiek ohitura berri hauek izan behar dute.

Otordu bakoitzaren ondoren hortzak garbitzekoa. Eta hortarako aproposak diren hortzeskubilaz eginen da, lagungarri gisa hortzorea erabiltzen ahal delarik.

Ohitura hau, haurrei txikitatik egiten erakutsi behar zaie.

Janari gauza ere kontutan hartu behar da, **jan-neurri ego-kiak eginez.** Gozo gauzekin kontu haundia hartu kaltegarriak baitira. Haurrei ahal den

ERITASUNARI

HORTZAK


ERAKUTSI



eta goxoki gutxien emanez eta ematen zaion hori otordutan izanen da eta ez otordu artean ohitura den bezala. Beraz, **otordutan jan eta ondoren beti hortzak garbitu.**

Jakin badakigu, dentista batengana joatea ez dela txantxetako gauza, Seguritate Soziala neurri haundi betetan ez delako hortzen osasunez ardurat-

zen(hau aldatzen ere badago egitekorik)eta gure kontu joaten direla ahoko gastu hauek. Baina, beharrezkoa da **urtean behin bederen errebisio bat** egitera joatea, erremediorik ez duen hortzak ateratzeko edo eta ahal bada hondatua, galdua izan baino lehen oreztatua, enpastatua izan dadin.



HAURREN HAZBIDEAN ASKATASUNARI EKIN BEHAR DIOGU

Haurra hazitzen ari den pertsona da. Gizakiengan, jaioberriak guztik babesgabeak dira. Egoera horretatik gizon izatera ez da eginkizun erreza. Gizakiok, gizarteko izakiak gara, hau da, gizarterik gabe ez ginateke izango, hain zuzen. Izan ere, haurrak sendia eta gizartea behar ditu bizi eta akas ahal izan dadin, jaiotzen denean ez bait da gauza bere gisara, bere kabuz, bizitzeko. Horien ezan hil egingo litzateke. Haurrak, beti ikasten egon behar duen pertsona da, ezagutzen ez duenez gero, galdera ugari egiten digu here jatorriez.

Haurra, denboraz bete behar den paper zuri bat da. Hau, horrela izanik, zaila da eta pitinka-pitinka egingo da. Baina, haurra lan hori betetzeko gai ez denez gero, handien laguntza beharrean da. Ikurretan jarraituz, handien ezaguera ala indarra idazteko behar den tresna da, arkatza hain zuzen. Arkatzaren bidez idazten dute handiek, paper zuria den haurragan. Honetan datza arazorik garrantzitsuena, paper honetan idatzita dagoenak baldintzatu ko bait dio, haurrari bere jokabideetan. Mundua antzerki handi bat da eta gure paperean idazten digutena egingo dugu bizitza osoan.

Zientifikoki, roleri eta abarri buruz hitzegiten ari garela esan daiteke. Prozesu hau, si-

zialgintza delakoa, haurra gizarteratu dadineko gizarte guztiek erabiltzen dduten mekanismoa da. Lehen mailako senditan gertatzen dena eta bigarren mailako ikastolan ordea.

Horrela gizarteko ezaugarriak asimilatzen ditu haurrak. Gizartea egilea da eta haurra berriz hartzailea. Gizartearen eta haurraren arteko harremana menderatzaile gisa agertzen zaigu, jaun-jopuren arteko dagona gisako. Haurren eskubi-

deak ez daude handien konzientzian. Zer dela eta? Handien eritziz denbora alferrik galtzea izango litzateke horretaz hitzegitez. Indarra dutenek txikiak zanpatu dezatenen barharrean daude, hau egitera bakarrik erakutsi bait diete, eta horrez gainera, ohikeria hau aldatzea komeni ez zaielako. Handiek egindako gizarte hau desagertuko balitz, esontza sakonetan eroriko litzateke. Horregatik, dena dagoen bezela,



aldaketa barik, jarrai dezan beharrean daude. Orduan, esaten ahi dutenen azpian zer datza? «Mundua honela izan da betidanik, honela da eta horrela izango da», zein da esaldi honen esanahia? Agerriz hitzegin dezagun, haiek egindako mundua eta haien segurtasuna babestea besterik ez da.

Nork ez du isil erazi edo geldierazi inoiz haurren bat pake-tan uzten ez gaitulako? Zenbat zigor eta jipor deir zuzengabe-keri?

*Haurra, denboraz
bete behar den paper
zuri bat da.*

Argi dago haurrentzako. Ondraduak izango bahina gure haurtzaroan pentsatuaz, hau ontzat edo egizat jo beharko genuke. Adibide batzuk ikusiz ulertuko dugu.

a) Askotan haurrak handien jostailuak besterik ez dire.

«Hau ikastolara ez da joaten, bere amonarekin sienta egiten du eta»

«Neska hau bere osabarekin lo egiten du, bere aitabitxi da eta. Bai, osaba mutilzaharra da»

«Lehenbizi iloba neretzako»

b) Zenbat aldiz gezurtero gara.

«Ez ezak hori egin, pekatua da eta Jesusito negarra egingo du»

«-Ama begira harrapatu dudana sugea!

-Hori kaka da. Bota ezak segido! Ia, garbitu duzu eskuak? Etxe honetara zikinkeriarik ez dira ekarri behar.

-Baina ama, polita da, ez du pozorik eta aunitz kostatu zait harrapatzea.

Ixil zaitez! Garbitu eskuak eta apaizari eramizkiozu arraultz horiek zure osaba zaren urtemuga gaur baita»



*Mundua antzerki
handi bat da eta
gure paperean
idazten digutena
egingo dugu bizitza
osoan.*

«Nakatu zaude seme, eta bihar ikastolara joateko lo aunitz egin behar duzu, besleta ez duzu ikasiko eta beste haurrak zu baino gehiago izango dira, eta ni triste egongo nintzateke.

.....Baina, haurra ez du oheratu nahi eta.....

Joan zaitez ohera, eta utz nazazu paketa ordu batzuk!»

Zoritzarrez, aipatutako egoerak, errealidadean gertatzen diren egoerak dire. Zer ikasi, asimilatu eta barneratu dute haurrek? Gure bihotzektako gogorkeria, smina eta gorrotoa besterik ez. Gizarte hau ezatsegina


izanaz, gaurko haurrek egingo duten urrengo gizartez, hola izan daiteke gurea baino hobea guk jadanik bure arazoez baldintzatzen ba dizkiegu?

Une batetan behintzat behar beharrezkoa da, lurbira honen berezko narabidea, nora goazen jakin degazun; une hau aprobetza dezagun. Beharbada balduak gabilta! Txantxa hain odolezkoa da, zuzengabekeria-ko iraunkor egoera hau ikusirik, gizakiak erregelatu behar duen.

Haurrak gure eraginik gabe paketa utziko bagenu, mundu hobe bat ez litzakete egingo?

Irakaskuntzan, heziketan askatasunaz mintzatzen denean, zeinen askatasunaz aritzen da? Sendiarena ala estatuarena? Zer den kontutan hartu beharko

*Haurren
eskubideak ez daude
handien
kontzientzian.*



Baina, non dago egia? Nork daukan egia? Egia zar den? Egia ez dago. Sortu da bai-zik. Ez dago gure atzean, gure aurrean baizik. Egia balego denok ezagutuko genuke. Giza-banako bakoitzaren egia bere bizia da besterik ez. Utz dezagun paketan haurrak bere egia bila daitezen! Lagun biezaie, bere beharrak ezagutuz eta gure arazoz ez galeraziz!

Gaur helburu batez natorki-zue gogoeta hauez, bizartean dagoen egoera nabarmen hau adieraz diezazuedan, behin argituz gero pentsakera berriak sortzen direlako eta horrela praktikara eraman ditzakezuela pentsatzen dudalako edo hone-la bait deritzot.

*Utz ditzagun
paketan haurrak
bere egia bila
dezaten!*

NERESKY

*Nork ez du isilerazi
edo geldierazi inoiz
haurren bat paketan
uzten ez gaituelako?*

dugu, sendiari edo estatuari interesatzen zaiona, edo hobeki haurreri komeni zaiona? Jadanik dakizutenez zalantzarik gabe haurrarena. Horretan ez daiteke okerrrik egon.

Norena da haurra? Ze galde-ra! zapaltzaileen galdera zalantzarik gabe. Hoiiek diotenez, sendiarena edo estatuarena da haurra. Lehendabizikoak odol jabetasunetan oinharritzen dire, bigarrenak haurra hiritar izango delatan, ordea. Gurasoen eskubideren aldekoek, bere burua liberalizat hartuz askatasun aitatar bat nahi dute.

Estatuaren eskubideren aldekoek, gubernatar despotismoa nahi dute.

Berriz, norena da haurra? dakizutenez inorena ez edo hobe norena. Eskubidea haurrarena da, eta eginbeharrak sendi eta estatuarena dira. Haurraren hazkundeak askatasunari ekin behar diogu, benetan nahi ba dugu aurrera dezaten.

Zein ezaugarri garrantzitsuak behar ditu irakaskuntzak?

1-Haurrak gezurra, kezka eta okerratik alde egin dezan

2-Haurrak egia ikasi eta maitatu dezan

3-Haurrak erizlaria ezan dadin

*Zein ezaugarri
garrantzitsuak
behar ditu
irakaskuntzak?*

l gizaki sociedad
babesgabe indefenso
iritsi llegar
eginkizun tarea a realizar
bere kabuz por su cuenta
ezaguera conocimiento
arkatza lapiz
antzerki teatro
gizarteratu dadineko para
cuando se solucione
menderatzaile dominante
hartzaile receptor
jopu siervo
esannahi significado
aldaketa cambio
jipoi paliza
zuzengabekeri injusticia
jandanik ya
zapaltzaile opresor
hazkunde crecimiento
erizlari critico
helburu meta

ON EGIN IEZAZUE!!!

OHITURA denez Ihauteri garaian egiten diren opilak dira, aurtengoetan joaldunen eskue-tan ikusi ditugu, joalduna joarik joz eta tarteka piperopilari aut-xiki eginaz, goxatuz. Izenak hori ez adierazi arren piperopila go-zoa da. Nonbait lehen bertze ohitura batzuk izaten ziren hala gizonezkoak edo mutilak Do-neztebeko feritara joaten zine-nean emakumezkoei, neskei tur-rona ekartzekoa eta Ihautetan berriz, emakumeak, neskak or-daina gisa piperopilakin oparit-zekoa, bat hain zuzen ere. Gaur egun noski, horrela ez da ger-tatzen, denok bait dugu turrona erosteko aukera baina piperop-ilak egiteko... errezeta jakin behar.

Zer behar da piperopilak fe-giteko? Bada:

- Dozena bat arraultza,
- Kilo bat azukre,
- lau kanela zoztor eta
- 3/4 irin.

HAURREN KANTAK

TTikienak arraultzea erosi.

Honek prexitzten paratu.

Honek gatza pixko bat eman.

Eta honek dena, dena jan.

Eta honela egiten da:

Bi arraultza zuringo eta guzti eta bertze hamarren gorringoa bakarrik ontzi batean bota. Ka-nela ehogailu batean txikitu, ehotu eta arraultzekin nahasi, ondoren, azukrea eta irina bota eta eskuz edo egurrezko koilare bateaz ongi nahasi, aunitz kos-tatzen da hori egitea, masa hori gogorra delakoz. Ordu erdi ba-tez geldirik utzi.

Labean sartzeko bi erretilu behar dira, labea berriz, bi su-koa izanen da, hau da: goran eta beheran duena. Hala lehenbizi beheranparatu den erretilua gero gora pasatuko da eta goran zegoena beheran. Horrela pipe-ropila goitik eta behetik egin dadin.

Behin orduerdia pasa ondo-ren eta masa hori labean sartu baino lehen hau egingen da: egur batzen gainean azukrea botatzen da eta koilare normal batekin masa pizka bat hartu eta eskuz bildu azukrea botaz gainetik.

Atxe Mutxi Xilarra.

Joan, joan olara,



ardi beltxan bilara.

Opiltxon biribiltxon,
txin, txan, txon.



Elefante papera puxketan eba-kita eduki eta haien gainean za-baldu eta labean sartu. Platera bat ur pizka batekin prestatua eduki eta egina dagoela ikusten denengan atera eta ur horretan busti aldi bat eman eta segiduan kanpoan utzi ur hori bere gisara zurrupatzeko, ondoren papera kendu. Erreza da ez?

BADAKIEU
NOLA EGITEN
DEN
HAU?





BERTSOLARITZA BIDASOAREN ARRIMURA

Azken urte hotan eginkatu den gisa berean, aurten ere Nafarroako Bertsolari Txapelketarako deia zabaldu da. Txapelduna ere nor den jakinen da agian lerro hok argitara ordurakotz. Prestaketak egiten hasitearekin batera hortxe pasatu izanen dituzte bertsolariak euren tripakomin eta egonezinak. Horrelakoak sentitu izanen dituztenen artean lau bidasotar berri agertu zaizkigu aurten. Txapelketaren saio finala ere Sunbillan ospatuko delarik.

Lau berri horien erreferentziak hauexek dira: Sunbilako Fermin (ostatar omen), Lesakako Jose Yantzi eta Jose Olaetxea, eta Bera-Lesakaren arteko disputan dagoen Alkai-gako Migel Anjel Taberna. Lehenbiziko hirurak eskola tradizionalakoak, eta laugarrena, ordea, Iruñeko Zaldiko Maldikon trebatu dena. Ez dute, nik dakidanez, sekula txapelketetan parte hartu. Lau ondo golpe batez horren soildurik dagoen oihantxoan jaio zaizkigunak. Aspaldiko arbola zaharraren gerizean. Bidasotarra ere baita lau

hauekin batera presentatuko den Bautista Madariaga aranztar beti gaztea. Aspaldiko garaietatik gaurko egunak arte Bidasoako Errepublikaren bandera harro harro eramenduena. Horiekin batera gure auzokideak diren Malda Errekako iturrendarrak eta zenbait baztandar ikusten ahalko ditugu ahalaginetan. Horietako zenbat Sunbilako finalera? Bidasotarren bat txapeldun?

Arrazoi politikoek eta aldaketak sozialek hizkuntza eta bertsolaritza kondenaturik ziztuztela uste genuen momentuan



“Bainan egitan bizirik dago bertsolaritza Bidasoa aldean?”

berpizten ari zaizkigu biak, bizirik iraun nahi duten animalia zaurituen gisara. Ahul eta indarrik gabe zegoen suari hauspoz eragin zaio eta horren ondorioz erraten ahal dugu inoiz baino bertsolari gehiago dagoela gaurregun Euskal Herrian, Nafarroako aurtengo Txapelketa bere lehengoetara itzuli dela parte hartzaileen kopuruaren aldetik, eta bidasotarrek ere harritu gaituztela abisatu gabe borts txapeldungai ditugula erran digutenena.

Bainan egitan bizirik dago bertsolaritza Bidasoa aldean? Nolapaiteko normaltasunez gertatzen den fenomeno da bertsolaritzarena gure paraje hotan? Erantzunak negatiboa izan behar du nahitanahiez. Hau da, gertakizun bakana, aislatua, noizpehinkakoa baino ez da bertsolaritza geure artean, zoritxarrez. Gazteek ere, normala denez, ez dute bertsoetarako grina hori. Eta gazteak aipatzen ditut hain zuzen, haiek direlako geroa, etorkizuna erai-kiko dutenak. Normala diot, arrontean logikoa baita betiko eskolak izan diren sagardotegi eta ostatuetako «irakasleak» mutu baldin badagozi, ezinezkoa izatea inor kristok bertsotan ikastea, ezta zaletzea ere.



“Erantzunak negatiboa izan behar du nahitanahiez”

Hala ere panorama ez da hain beltza. Zeren komunikabideak direla edo bakoitzak barrenean itsatsirik dituen hondarrak eta kanpoan aditu eta ikusten ahal den pixar horrek zirikatutik, bai baita bertsozaletasuna bidasotarren artean. Nola landu eta desarrollatu, ordea, horixe bera? Hor zegok koxka! Toki apropos eta irakasle faltan gaudeti. Bainan irakasleak ekar litezke, edo bertako jendea konprometitu, eta toki aproposak sortzeko beharra aipatzen ari naiz. Lesakan, konparazio batera, hasiak omen dira, ea inguruetako herrietara kutsatzen den bizioa!

Bertsolaritzak (eta euskara berak ere) ez du jakin laketzen gizarte industrializatuan (Nafarroako Bidasoa aldeaz ari naiz), eta baserriko sukalde zokoan bazterturik gelditzeko arriskutan dago. Eta baserriko bizimoduak indar eta pisua galdu duen neurri berean ahuldu zaizkigu bertsolaritza eta hizkuntza. Bi horiei bizi berria emateko desafio eta apustua hortxe dugu. Zeinek nahi dio tira sokari?

KAPI



GIZON HAUNDI BAT: ANTTON MAIZ



Nafarroako iparraldean Mendaur eta Ekaitza mendien alboan dituela badago herri txiki bat Arantza deritzana, baserri asko dauzka eta haietarikoa batek Petrixeneko-borda du izena. Hemen, baserri honetan bizi da gizon haundi bat, haundi kirolari bezala, eta haundi persona bezala. Kirolari bezala Euskalherri guztian ezaguna da, baina persona bezala ez dugu uste hainbat. Guk, elkarhizketa honen bidez nahi genuke ahalden moduan jendeak jakin dezan pilotari mardul eta ospetsu honen bizitza, bere iritziak eta pilotari izatera nola iritxi den.

Martxoko arratsalde hotz euritsu batean, gogoratu zigun Petrixeneko-borda aldera inguratzea. Atera iritxi garenean txakurra saunkaka hasi zaigu, baina, laster entzun dugu emakume baten abots atsegingarria. Lourdes, emakume gazteak, ongi etorria eman eta aurrera pasarazi gaitu. Han, mahiaren inguruan, aurkitzen ziren Rosa Mari, neskatxo txiki eta alaia, bere aitona eta amonarekin parrez eta jostetan, baita denen artean ere mahian patxadan eserita irri fartsu, gizon haundi bat, pilotari haundi bat, persona haundi bat: Antton Maiz.

rren urtean titular gisa jokatu nuen eta Logroñon Espainako txapelduna atera nintzen, hain zuzen ere. Egun hura biziki zoriontsua izan zen neretzako; alde batetik txapela irabazi nuelako eta bestetik, eskulari empresak fitxatu ninduelako. Txapeldun atera ondoren Fraile etorri zitzaidan galdezka «ia profesionala-tara pasatu nahi nuen» eta esan nion: «merezi bazuen, ba... igual». Hau gertatu zenean Anttonek 23 urte zituen eta atera-ta zeuzkan II buelta pilotarengatik, baina, laguntza txikiakin gehiengotan, bere sakeletik ordaindu behar izaten baitzituen gastoak, eta bizitzekotan lana egin behar, noski.

-Ni 18 urteetan hasi nintzen «Laminaciones de Lesaka»n lanean. Han pasatuen 5 urte terdi eta ez nuen asmorik gelditzeko, ez bainekien pilotatik bizia aterako nuen, baina 1976garren urtean bigarren mailako txapelduna atera nintzen eskularik ateratzeko esan zidan eta orduntxe utzi nuen fabrikako lana.

Antton Maizek «Profesional» eginez geroztik badauzka hamaika partidu jokatuak, berak aitortzen zigunez, urtean ehunenbat bait ditu gutxi-gora-behera. Txapelketetan ere partidu franko jokatu ditu. Has gaitezen piskabat aztertzen zure historiala banakako txapelketan.

-Bai, 1976ean bigarren mailako txapelduna atera nintzen Salbidea nuelarik kontrarioa. Urrengo urtean lehendabiziko mailan jokatu nuen eta Gorostizaren kontra galdu gainera. 1978an Beristain eta Retegui Ilari irabazi ondoren Martinikorenakin galdu nuen 22-21. Hurrengo urtean Garzia Ariñokin galdu nuen. 1980 eta 1981 Retegui Igarren aurka jokatu nuen eta bietan galdu hain zuzen ere. Lehendabizikoan azken partiduan

**Niri txiki txikitatik
asko gustatzen
zitzaidan ehizean
ibiltzea. Gaztea
nintzela aitari
eskopeta ezin
kenduz ibiltzen
nintzen.**

**Antton Maizek
«profesional»
eginez geroztik
badauzka hamaika
partidu jokatuak,
berak aitortzen
zigunez, urtean
ehunenbat bait ditu
gutxi-gora-behera.**

Antton Maiz Bergara. 1951. Abuztuaren 24-ean jaio zen Zakutene etxean, lau anaiaetatik gazteena. Hiru hilabete zituela Petrixenekoborda baserrira aldatu ziren bizitzera, geroztik beti han bizitu delarik.

Kirolari bat atera bada bere merituz bi-dez haxe Antton Maiz dugu, berak dioen bezala oso laguntza txikiak izan bait ditu.

-Ni txikitari hasi nintzen pilotan, hemen, herrian denok bezala, eskolako arketan eta frontoian ere bai. Orduan afizio izugarria izaten genuen, jai egune-tan joaten ginen herrira lehendabiziko mezara, handik atera eta korrika frontoiara lekua bilatzera. Nere pilotari hasiera, inguru hauetako herri-txapelketetan izan zen: Bidasoako txapelketa, interpueblos eta abar. Garai hoietan prestatzaile bezala, herrian, Gerardo Leiza izaten genuen eta izan da nik izan duten lehendabiziko prestatzailea.

Herritik kanpora ateraldiak bere anai Martinen bitartez izan ziren, Anttonek dionez.

-Bai, jubena nintzela, nere anaia Martinek eraman ninduen Irungo Kurpil-Kirolak elkartera txapelketak jokatzera, han hasi nintzen piskabat pilotan serio jokatzeko. Geroago jokatu nituen Kurpil-kirolak-ek antolatzen zituen torneoak afizionatutan eta abar. Handik salto koxkorra heman nuen, Nafarroako federaziokin hasi bait nintzen, «Torneo federaciones» deritzan txapelketan jokatzeko. Lehenengo urtean «suplente» gisa egon nintzen urte hartan, Bergara II eta Martinez de Irujo binaka eta Elizalde binaka jokatzeko zutelarik. Biga-

(finalean) 22-14 eta bigarrenean «semifinalean» 22-12.

1982ean Santodomingon Galartzak irabazi zidan. Iaz, berriz, ez nintzen atera txapelketara eta aurten ere ez daukat asmorik. Ni ez naiz manomanista eta nahiago dut atera, gahinera, urteak ere badaoz gora eta horiek ez dute barkatzen.

Binaka ere badauzka txapelketa franko irabaziak. «Torneo San Fermin» deritzana, «Torneo San Mateo» eta abar. Bainan Anttonek badauka marka ikaragarria ezarririk! 1978 urtean jarri zuten martxan binakako txapelketa, bi enpresako pilotariak jokatzen dute. Anttonek txapelketa hau hasi zenez geroztik beti finalera iritxi da eta ez iritxi bakarrik, irabazi ere bai lau aldiz!. Aterako ote da marka hau onduko duenik!. Zer diozu zuk, Antton?

-Ez dakit, suertea izanez gero beste batek ere erraz irabaz dezake. Nik uste suerte haundia izan dudala, txapelketa honetan. Lagunak ere oso onak izan ditut beti eta horrek ikusteko haundia dauka. 1978-1979ean Pierolakin jokatu nuen, lehendabiziko urtean irabazi genuen finala eta bigarrenean galdu. 1980-1981ean berriz, Ariñokin jokatu nuen eta gauza bera gertatu zitzaidan, lehendabizikoan irabazi, urrengoan galdu. Azkeneko bi urte hauetan Mikel Bengoetxearekin jokatu dut eta bietan txapela eraman dugu.

Zuk partidu asko jokatzen dituzu eta pilotari guztiak ondo ezagutu ere bai, zein da zure iduriz pilotaririk onena edo zuri lanarik gehien ematen dizuena?.

-Pilotariak denak asko jokatzen dute, hor ez bai dago diferentzi haundirik elkarren artean, baina, neretzako atzelaririk zailena Lajos izan da. Ez du ematen honeri urteak pasatzen zaizkionik! orain ez dakit nola egonen den, baina Julian Retegui pilotari izugarria da banakako partiduetan. Hura ongi dagoenean, nik uste alde haundia dagoela besteetara. Binaka Mikel Bengoetxeak ere asko jo-

**Gaur egun ez da
lehen adina aritzen
jendea pilotan,
nonbait nahiago
dute ostikoka eman
pilotari.**



katzen du, lehen atxiki libre zegoenean onenetakoa zen eta orain kendu dutelarik ere ikusten da beste armak badauzkala: ezker bole... eta abar.

Kirolari denak izaten dute egun bat gogoangarria; ona atera zaiolako edo txarra. Ze egun daukazu zuk gogoan?.

-Binakako txapelketako azken partidua denak gogoan dauzkat. Jakina, irabazten duzuen txapela beti gustora gelditzen zara baina, bereziki gustora gelditu nintzen banaka, Martinikorena eta Ariñokin jokatu nituen partiduetan. Bietan galdu nuen, baina oso gustora gelditu nintzen. Txarrenak berriz paperakin gaixo egon eta ondotik jokatu nituenak izan ziren, ez bait neukan indarrik eta oso gaizki pasatzen nuen.

Azken aldi honetan ikaragarritzko iskanbilak dabilta, atxiki gora eta atxiki behera, Anttonekin mintzatu ginen gai honi buruz, eta hona bere iritzia:

-Banaka jokatzeke alde ikaragarria dago atxiki kenduz gero. Binaka beste kontuak dira. Nik ez dut diferentzia haundirik sumatzen atxikirekin edo gabe. Zenbaitek esaten dute atxikirengatik galtzen ari dela afizioa, ez dakit ..., hori denborakin ikusi beharko da. Dena dela

oraingo iskanbilak ez ziran gertatuko atxiki kendu balute lehen, hasi zen garaiean. Bainan, dirudienez orduan enpresari ez zitzaion inporta, jende nahiko joaten bait zen frontoietara eta ... orain kontuak!.


Zer, Antton, aterako ahal da Arantzatik zu bezalako pilotaririk? behinik behin zu gelditzen zarenako?. -Zergatik ez! pilotari ona noiz nahi atera daiteke, ateratzeko afizio haundia behar du, asko eta asko ari, gero... berezkoa ere bai, bainan gogorik ez badu alferrik da harekin. Hemen, Arantzan ikusten dut egiten direla txapelketak, eta nik uste hori dela afizioa sartzeko bidea. Gaur egun ez da lehen aina aritzen jendea pilotan, nonbait nahaiago dute ostikoka eman pilotari.

Jakin nahi dugu zer gertatzen den, pilotariekin, pilotan gelditzen zaretenean. Enpresak bilatzen ahal dizue lanarik?.

-Ez, ez, omenaje bat egiten digu eta etxera. Pilotan geldituz gero, geronek bilatu behar dugu gure bizia.

Antton, pilotatik kanpora izango duzu zerbait gustokoa zaizuna. Zein da zure afizio hori?.

-Bai, niri txiki txikitatik asko gustatzen zitzaidan ehizean ibiltzea. Gaztea nintzela aitari eskopeta ezin kenduz ibiltzen nintzen. Orain Ekaitzan ibiltzen



gara uso egizean ...Hor barrena ere bai pixka bat. Txakurra ere badaukat... Erbi egizean ibiltzeko...


Anttonen bidez jakin dugu, Lourdes bere emaztea Haurdun aurkitzen dela. Zorion beroenak emanez gero, jakin nahi izan dugu ia gustatuko litzaioke bere bideak jarraitzea semea izango balitz.

-Zergatik ez! Bai asko gustatuko litzaidake, semearen bat ni bezala pilotari ateratzea. Bainan, hori amets luze bat da eta ez dakit gertatuko den.

Beste zenbait iritzi ere jaso genezaken Anttonengandik, bainan, honez gero nahiko izango dela eta etxe aldera irtetzeko asmoetan hasi gara. Alferrik izan da hau, azaldu baida Gerbasio, Anttonen aita, farra eta algara zeriola. Gizon bromoso eta alaia bat baldin bada! azkenengo gerratean ibilia da eta kontatu dizkigu hango zenbait gertakizun. Pentatu dugu hurrengoan berarekin egin beharko dugula elkarhizketa. Izango du zer kontaturik Antton eta Lourdes, Gerbasio eta Milagros Rosa Mari txikiarekin han gelditu dira sutondoan poztasun atseginez. Iraun dezala luzaro !!!



Arruzpi



BAKEA?

BAKERAZPENA?

Gaur egun erabiltzen diren kontzepto askok, sortera-
duten nahasmenak, nolabait aztertzea merezi zezakeen.
Erantzun zuzena ezin daiteke erdiratu inoiz, bakea bai edo
bakea ez. Zer nola jokatu behar dugun zapalkuntzaren
aurka? izan behar du noski, gure erantzuna. Bakea denok
maite dugun gauza da. Historian zehar hori lortzea izan da
zapalduen nahia.

Zapalduen gogorkeria al da, Euskal Herriaren
normalizazio politikoa lortzeko oztopoa?

Badago gogorkeria hori erabiltzen dutenei, gure Herriaren
zoriona ala zorigaitza erabakitzeke ez direla inor,
aurpegiatzerik?

Gogorkeriaren arazoa Eus-
kal Herrian, ezin daiteke ulertu
azterketa baten barruan, ez ba-
dugu kontutan eukitzen gure
herriaren «errealitate soziopoli-
tikoa» eta, era berean, gure az-
terketa moralkeriaz kutsatuta-
ko planteamendu batzutan oi-
narritzen badugu.

Bi motatako gogorkeria,
ez-berdina, ikus dezakegu. Alde
batetik, Estatuak berak erabilt-
zen duena: langileen zapal-
kuntza, guttinak aberasteko eta
gehienak hauen menpean
larri-larri bizitzeko. Bestaldetik
zapalduen ere, zenbait taldek
behintzat, egoera horri aurka
egiteko, gogorki eta radikalki
erantzuten dute. Euskal Herria-
ren bakerazpeaz hitzegiten du-
tenean, polizia gehiagoz, tanke-
ta gehiagoz eta erahilketa ge-
hiagoz jarraitzen dutela ikustea,
benetan kezkarria da. Posible
ote da bakea holako egoera ba-
tean? Zer nolako bakea? Ez al
da zapaltzaileen gogorkeria, za-



*Zapalduen gogorkeria kulturalki,
sozialki, ekonomikoki, politikoki,
lantegietan... bizi dugun
zapalkuntzaren nahitaezko ondorio
nabaria besterik ez da.*

XINAURRE
GORRIAK

- 1 bakerazpen pacificacion
- 2 aztertu analizar
- 3 erdiratu centrar
- 4 zapalkuntzaren aurka contra la
- 5 erantzun respuesta opresion
- 6 gogorkeri violencia
- 7 oztopo dificultad
- 8 arazo problema
- 9 azterketa analisis
- 10 kezkarria inquietante
- 11 gehiengo mayoria
- 12 sustrai nabarmenetik destacable
- 13 alderantziz al contrario
- 14 berehala por las buenas
- 15 errefusagarri rechazable
- 16 zuzeneko de justicia
- 17 bihurtu transformar
- 18 gizarte sociedad
- 19 garaipen victoria
- 20 besteritzi discrepancia
- 21 gogorkeria eza no violencia
- 22 iraultza revolucion
- 23 sakailatu exterminar
- 24 baimenez con el visto bueno
- 25 kidekeri complicidad
- 26 bakezaletasun pacifismo
- 27 balio goiengoa valor supremo
- 28 parekidetu comparar

ppalduen gogorkeria sortera-
duna? Gogorkeria kulturalki,
ssozialki, ekonomikoki, politiko-
kki, lantegietan... bizi dugun za-
ppalkuntzaren nahitaezko ondo-
rrio nabaria besterik ez da. Inda-
rraren bidez, batzuk gehiengo a-
menperatzea lortzen dute. Az-
kken batean, gogorkeria sistema
ssozial honen sustrai nabarmen-
etik bat dela, erran dezakegu.

Gure jauntxoentzat, gogor-
keria ofiziala da, hartzen duten
airnasa bezain garrantzitsua;
Estatu, gobernu eta parlamen-
tuen baimenez egiten dena. Al-
dlerantziz, munduko zapal-
duentzat, zenbait sektorek mo-
dulu ezberdinetan erabiltzen du-
tten gogorkeria, borroka arma-
tuakin eta gogorkeria mota
guztiekin bukatzeko bidea bes-
terik ez da; askabidea. Sistema
K kapitalistak ez duala berehala
aimore emanen kontutan izan
behar dugu. Horregatik, Esta-
tuaren gogorkeria errefusaga-
rrria den bitartean, zapalduena
berriz zuzeneko eta beharrez-
koa bihurtzen da azken batean.

Gandhi eta gogorkeria eza

Gandhiren jarraitzaileel diotenez, zapalduak injustiziari
kontra egiteko eta gizarte zuze-
na lortzeko, inolako gogorke-
rriarik erabili gabe jokatu behar
dute.

Gandhik Indiaren indepen-
dentziarako erabili zuen sistema
eta munduan zehar zapalduak
gogorkeriarik gabe, lortu dituz-
ten garaipenak exenplutzat
hartuz, osatzen dituzte beren ar-
gudioak.

Bi gauzatan gaudela ados ba-
kezaleekin, laster erran dezake-
gu:

1.-Guk ere, haiek bezala, ba-
kea maite dugu.

2.-Baita ere, aunitz kasutan,
gogorkeria eza ereabiltzea be-
harrezkoa ikusten dugu.

Zer dira ba, gose grebak, lan-
gileen grebak, manifestazioak,
asanbladak...?

Gure besteritzia, gogorkeria
ezaren taktika eta estrategiaren
balorazioan erdiratzen da, gi-
zartea eta mundua aldatzeko
metodo bakarra. Guretzat ez.

Sandinistek ezin lezakete
zaindu beren iraultza, beren et-
saiei loreak banatuz. Salva-
doren ere beste lekutan bezala,
borroka armatuagatik ez balitz
gogorki zapalduko zituzten,
protestatzen zuten guziak sa-

kailatu arte. Ez da exenplu ge-
hiago beharrik. Historiak, herri
zapalduen askatasuna ez dela
zapaltzaileen baimenez lortzen
garbiki erakusten digu, eta as-
kotan, modu ezberdinetako bo-
rrokak erabili behar direla.

Ez dugu oinperatu nahi, go-
gorkeria ezak duen posibilitate
iraultzaile hori. Gure asmoa,
argudio horiek duten idealis-
moa eta ohartu gabe, gure et-
saiekin duten kidekeria kriti-
katzea da baizik. Mugimendu
idealista guziak bezala, bakeza-
letasuna sentimendu erlijioso
sakon bati lotuta dago. Gand-
hiren argudioek diotenez, «hel-
buruak ez du inoiz biderik justi-
fikatzen», balio goiengo lort-
zen du eta azken batean injustu
bihurtzen da. Benetan, gogor-
keriaguztiak berdin kondenat-
zeak, zapaltzaileek erabiltzen
dutena zapalduak erabiltzen
dutenetik, bereizi gabe, ez du
laguntzen egoera hori. Dena
dela, gogorkeriaren erabilpe-
nean, ezin litzateke parekidetu
zapaltzaileen ideologia eta za-
palduena.

Lehenagoentzat, gizarte injus-
tua eta pribilegiok mantentzen-
ko behar-beharrezkoa dutela-
ko. Bigarrenak berriz, beha-
rrezkoa dutelako nolabait justi-
zia lortzea.



*Eta horrela, morroia defeintzeagatik eta askatasunaren erakuspenak zabaltzeagatik
aitxilotu zuten eta Manchako toki batera eraman.*



Esaten dizut, Don Quijote jauna, baraur egitea ez dela osasungarria gorputzarentzat.

*Sancho laguna, gure arma bakarra gose greba denean, beharrezkoa dugu erabiltzea, gure
duintasuna zaintzeko.*



HARTZ BELDURTIA

Igandean ikastolako neska eta mutilekin Aralarreko mendietara joan ginen. Han kobazulo batzuk zeuden eta maixuek erran ziguten harat ez joateko, hartzak zeudelakoz. Guk ez genion kasorik egin eta harat joan ginen. Bapatean hartz xuri haundi bat ateri zen, denak laisterka ateri ginen.

Nik laster eta laster egiten nuen, inora begiratu gabe. «KRAST!» zuhaitz baten kontra jo nuen eta konorterik gabe gelditu nintzen. Gero hartzak hartu eta bere kobazulora eramanez ninduen.

Ernatu nintzenean ez nekien non nengoen eta nere aurrean hartz haundi hura ikustean, oihuka hasi nintzen:

—Faborez ez egin deusere. Snig! Snig!

—Bainan, zer erraten duzu?

Horrela erantzun ta gero, harrituta gelditu nintzen.

—Ez haserretu nirekin, nik ez nuen nahi zuk minik hartzea, horren konten ateri naiz, haurren ahotsa aditu dudalako, eta plaf! Denak eskautzen dire eta zuk holako txitxona.



—Barkatu! Barkatu!

Nik ia ez nekien zer pentsatu.

—Bainan, bainan... zu ez zara beste hartzak bezalakoa, zu ipunetako hartzak bezalakoa zara eta...

—Eske, eske, nola explikatuko nizuke... ni ipuin batetako hartz naiz.

—Ea ea explikatu hori.

Galdetu nion nik rolo hartatik ateratzeko.

—Ba...bitu...

Segitu zuen berak.

—Ttikia nintzelarik nere ipuineko sorginak nere kontra maldizio bat bota zuen. Maldizioa, hau zen: nik 5 urte egitean gizonen mundura joanen nintzela. Orain oso triste nago, ez dudalakoz lagunik

Ni, hartzak erran zuenaz pentsa nengoen...

—Ai! zer ideia!

Oihu egin nuen nik. Idei bat nuen eta hartzari erran behar nion.

—Ba hemen inork ez zaitu maiteko eta pentsatu dut nik zure liburura eramanez zaitudala.

—Bai, bai.

Hartz oso kontent zegoen eta biek herriko liburutegira joan ginen, han sartu eta galdetu nion:

—Nola izena du zure libururak?

—Hartz xuria. Egilea Jon Koka.

Erantzun zidan berak.

Liburua hartu nuen eta ireki: lurrean utzi nuen.

Hartz haundi hura liburuan sartu eta paperezko hartz ttiki batean bihurtu zen.

Gero nik liburu hura hartu nuen irakurtzeko.

Maite

ETXALARREN ASPALDIAN (GERTATUTAKOA

Ehun urte baino gehiago izamenen da, Etxalarren «Axura» bizena zuen bertsolari bat baze-
goela.

Amabirjinetan, bestetan, agintariek bertso batzuk eskatu zioten Asurari. Baietz erantzun zuten, baina baldintza batekin: inahi zuena erraitera utzi behar ziotela. Agintariek: baietz, lbaitz.

Eta hona hemen bota zitue-
nak:

Arrai haundia bizitzen da
arrai ttikia janez.
Beldur naiz idorrian ere
ez den lan hori hasi izanen.

Itxelarko barberuak eta
medikuak,
neskatxak kortejatzeko be-
re bizikuak.
Sendatu beharrean
utzi ttuzte erituak.

Eta agintariek haserratuta,
eman zuten hitza ahantziz,
Axura gizajoa kartzelara satu
zuten.

OLERKIA

Zihur nago:

egun gris,
motel batez jaio nintzen,
eguzkirik gabeko egun epel batez,
bi gau beltzek inguratutako
hune jelatinatsu batez.

Zihur nago:

ni jaio nintzenean
buruak
beste alde batetara bueltatuak zeuden
eskuak
beste norbaiterantz luzatuak
begiak
beste norbaitengatik malkotuak
kandelak
beste norbaiten izenean piztuak
kantak
beste norbaitengatik isiliak
ezpainak
beste norbaiten egarriz.

Arantxa
Urretavizcaya

GUTALDE.

1.983ko DIRU KONTUAK

SARRERAK

.1.982n gelditu zen dirua.....	78.044
.Berako Udalarren diru laguntza.....	35.000
.Gure diru laguntza.....	2.000
.C.A.N.ek zabalkundearengatik ordaindutakoak.....	30.000
.Prinzipa de Bianaren diru laguntza.....	25.000
.4., 5. eta Nafarroa Oinezi buruz argitaratutako Ttipi Ttaparen sarrerak.....	116.125
.Egutegiaren salmenta eta zabalkundearen sarrerak.....	428.230

DENETARA

.....714.399

IRTEERAK

.4., 5., 6. eta Nafarroa Oinezi buruz argitaratutako Ttipi Ttaparen irteerak.....	341.781
.Egutegiaren irteerak.....	305.284

DENETARA

.....647.065

LABURPENA

SARRERAK.....714.399

IRTEERAK.....647.065

Orain dugun dirua.....67.339

OINETAKO MERKEAK

LANEAN ARI NINTZEN BILTARTEAN EZ ERRETZEKO ESAN ZIDAN SENDAGAIL-LEAK.

-Eta, egin ahal duzu esandakoa?
-Bai, geroztik ez dut lanarik egin.

KOTXEAN ZIJOAZTELA:

-Aita, aita, hegazkin ar bat.
-Hago ixilik seme, horiek gurpilak dituk eta.

ITURENEN JASOTAKO TXISTEA:

Gizon bat joan omen zen Iruñara arraultzak saltzeko asmotan. Arraultzak sare batetan (sare horrek bere kiderra zuen) eta besotik zilintzika zeraman. Plaza Castillo ailegatu eta lurrean utzi zuen sare hori, mandatu batzuk egiten zituen bitartean. Hortan ari zela, zerri bargo bat etorri omen zen eta bere arraultzak jaten hasi eta gizona horretan ikusi zuen hasi zen: uuu! uuu! eta orduan zerria izutu eta laisterka hasi zen, bainan kiderra lepotik zilintzika gelditu zitzaion eta arraultzak bota egin zituen, denak plaza Castillon barrera zabalduz. Gizon haren nahigabea! ai! ai! nere arraultzak, nere arraultzak!, zioen. Gizon bat urbiltzen zaio eta erraten dio: que le pasa, que le pasa señor?. Eta berak honela erantzuten zion: si, un zerri bargo arraultzi zesto dentrando lepo porrastrando, porrastrando señor ai! ai! nere arraultzeak!.

Egun hartan oinetako berriak erostera joan zen Pernando. Ezteiren bat edo bataioren bat... ez dakigu zertarako beharko zituen. Garotara (iratze-tara) joatexko ez behintzat.

Beti ibili ohi zen Pernando, diruz urri, eta gauzak erosi aurretik prezioa galdetu ohi omen zuen. Hala egin zuen oinetakoak erosi aurretik ere:

-Aizu, zenbatekoak dira oinetako hauek?

-Eskubiko hankakoak hogeiz pejeta balio ditu, eta hori erosten baduzu ezkerrekoa dohanik, debalde emango dizut. -esan zion saltzaileak Pernandoren kontura barre egiteko asmoz.

-Eta zenbat balio du beste pare horrek? -galdetu zion beste pare bat behatzez seinatatzuz.

-Hau hogeiz pejeta, eta ezkerrekoa erakutsi zion. Eta eskubikoa (eskuinekoa) debalde emango dizut.

-Orduan, hau eta hau eramango ditut. -esan zion dohanik (debalde) agindu zizkion biak hartuz.

Eskatu zituen biak paper batetan bildu zizkion eta paketetxo hartu orduko korrika alde egin zuen ordaindu (pagatu) gabe. Izan ere ez zitzaion arrazoirik falta. Hutsaren truke emango zizkiola agindu zizkionak aukeratu baitzituen.

Saltzaileak atzetik jarraitu zion Pernandori deiardaka:

-Horri, horri! Lapur lotsa gabe horri!

«Hori entzutean, nobaitek besondotik heldu zion eutsi nahirik, baina Pernandok esan zion:

-Hago isilik, kankailu hori! Korrika apustu jokatu diogu eta.

«Oinetako saltzaileak ez zuen Pernando gehiago ikusi.

Ama, aita zergatik dauka buruan horrelako soilunea?

-Zure aita oso jakintsua da. Jakintsuek asko pentsatzen dute, eta horrengatik erortzen zaie ilea.

-Eta zuk, zergatik daukazu hainbeste ile buruan?

-Ume, zoaz hementik jolastera. Azkar!!

Praile batek galdetu zion behin Pernandori:

-Zenbat Jainko daude Pernando?

-Zazpi. -erantzun zion.

-Zazpi? Nolatan zazpi?


-Aita, semea eta Espiritu Santua, hiru, hiru pertsona ezberdinak, sei, eta Aita Eternoa zazpi.



BADAKIZU «GAIT-XURA» ZER DEN?

Beran lehen erabiltzen zen neurri bat da. Egurrazko laukia den kaxa honek, 27 zm. zabal eta 18,5 zm. goibehera ditu. Bazterretan bi kider motz baditu. Bertze neurri batzuk erabiltzen ziren ere Bidasoako inguruetan, kiloa ailetu bainon lehen: «erregua» oraingo 22 kg. zen eta «laka» edo «almotea» erreguaren 16. zatia zen.





Zerbait erran nahi baduzu
eta zure iritziak, asmoak
edo marmariak argitaratzeko
desiratzen bazaude.....
bidal itzazu zure
keinu krudelak
"Ttipi-Ttapa"-ra
Egin dezagun Ttipi-Ttapa
denon aldikaria
Helbidea: "Euskealduna" Orotatu Bera

TTiPi-TTAPA

150 pts